Bergarako astekaria

# Berrigara



## Udalekuak

## Gaztetxoak lagun artean


**Zer aldatu behar duzu?**

MECA BERGARA
...illaga 5
...ERGARA
...ERGARA
...3 76 40 68

**...PNEUMATIKOAK?**

| | 135/80/13 | 165/70/13 |
|---|---|---|
| DUNLOP | 4.848 (SP9) | 6.936 (SP9) |
| CONTINENTAL | 5.690 (CT22) | 7.243 (CT22) |
| MICHELIN | 5.738 (Classic) | 9.773 (Energy) |

**...OLIOA eta IRAGAZKIA?**

| | |
|---|---|
| Elf Prestigrade TS 15W40 | 6.595 PTA |
| Elf Prestigrade Diesel 15W40 | 7.690 PTA |

Turbo Dieselak, balbulanitzak eta V6 ibilgailuak izan ezik

**...BALAZTA-PASTILAK?**

| | |
|---|---|
| R5, R6, R7, R12, R14 | 5.650 |
| SUPERCINCO, R9, R11, R18, R19, R21, TWINGO, CLIO, EXPRESS, MEGANE | 7.350 |
| LAGUNA, SAFRANE | 9.400 |

RENAULT

Kasu guztietan, laneskua eta BEZ barne. Eskaintza honek 98-7-31ra arteko balioa du.

**Hau dena MECA BERGARAn daukazu**



# VENTANAS SAN MIGUEL

*Ibargarai 4 Tf. 943 76 12 21 Bergara*
*Iturrioz 24 Tf. 943 79 78 10 Arrasate*
*Errioxa 17 Tf. 945 25 88 92 Gasteiz*

*Zure ongizatea babesteko gaude*



**902 202 502**

VENTANAS SAN MIGUEL

**SALDUOSTEKO ZERBITZUA (URTEBETE DOAN).**
**NEURRIRA EGINDAKO LEIHOAK.**
**EREDU ETA MOTA GUZTIETAKOAK.**
**AHOLKULARITZA TEKNIKOA ETA KONPROMEZURIK GABEKO AURREKONTUA.**
**30 URTEKO ESPERIENTZIA ETA 100.000 BEZEROTIK GORA IZATEA DIRA GURE BERMEAK.**

# LILURA
## Edertze Institutua

Bidekurutzeta 7. Telefonoa: 943 76 31 71

Abuztuko ordutegia

**Goizeko 9etatik arratsaldeko 6ak arte JARRAIAN**

Abuztuaren 15etik 24ra itxita

***SOLARIUMeko ESKAINTZA BEREZIA***



# Lana

**Markos Balentziaga** / Irakaslea

Lana dugu gaurko gizon-emakumeok geure ardura nagusia; eta lanik eza, ordainetan, kezkarik minena.

Lanak egiten omen gaitu libre; lanak pertsona duin bihurtzen; lanak zerurako bidea irekitzen.

Lanagatik ari da dozenaka afrikar bizia galtzen Gibraltarko putzu malapartatuan, patera gaizto batzuez fidatuta.

Lanagatik giltzurruna emateko prest dauden pertsonen berri ere jakiten dugu aldian-aldian.

Eta alferkeriaren kontrako argumentu zerrenda akabera bakoa da euskaraz inoiz idatzi den literatur piezarik ederrena ere, Axularren "Gero".

Lanak eragin ditu euskaraz, era berean, atsotitzen artean zuku eta mamitsuenak; begira, "alferraren bekatua, lan egin gabe nekatua"; edota beste hau: "langile txarrarentzat, erreminta onik ez".

Lanak oreka pertsonala eta soziala ematen dizkigu; lanik eza atsekabe iturburu dugu.

Munduko Futbol Txapelketako partiduak ikusiz -zuri ere tripako mina egin al dizu Espainiako selekzioaren paradero mundialak?- irakurle, zenbat bider ez zara akordatu maisu-maistrek dauzkaten opor ederrez, aldi berean pentsatu gabe, zu Espainiaren match masokak ikusten zeniharduen bitartean maisu-maistra horiek azterketa fardoak zuzentzen zihardutela?

Baina honaino iritsi zaren irakurle maite, orain arteko hau guztia antigoalduta geratu den mundu baten ikuspegi herdoildua besterik ez da. Etorkizunak bide berriak urratuak ditu jada Katalunian.

*"Baina honaino iritsi zaren irakurle maite, orain arteko hau guztia antigoalduta geratu den mundu baten ikuspegi herdoildua besterik ez da"*

Eta Confebask-ek eta Eusko Lab-Elak ondo egingo lukete 133 orduko opor astearen gaineko esneberriketak baztertu eta Barçak eta Johan Cruyff-ek sinatua duten kontratuari erreparatuko baliote.

Ekainaren 20ko Kataluniako prentsak dakarrenez, honako akordio hau hitzartuta dute:

1. Barçak Cruyff jaunari orain arte egindakoagatik 282 milioi pezeta ordainduko dizkio.
2. Barçak Cruyff jaunari omenaldia egingo dio.
3. Cruyff jaunak hemendik aurrera inoiz lan egiteko deskuidorik izango balu, Barçari 250 milioi pezeta ordaindu beharko lizkioke.

Datuek ezertarako balio badute, Barça deritzan enpresaren curriculumeko azken-azkenek diote bere espezialitatean -futbolean- liga eta kopa txapelduna dela, eta orain arteko gainerako emaitzak ere punta-puntako enpresa bati dagozkionak dituela.

Horra etorkizuna; gainerako guztia ipuina besterik ez da! B

**barruan**



**Alvaro Esparza**
PSE-EEko zinegotzia

***"Legealdia amaitzeko 4 hilabete falta direnean gobernua haustea ez zait ondo iruditzen"***

8. orrialdean.



**Iñigo Zaitegi**
BKEko presidente izandakoa

***"BKE egoera onean lagatzen dut eta elkarteari eutsi egin behar zaiola uste dut"***

21. orrialdean.



**Iñigo Larrañaga**
Igerilekuetako langilea

***"Piszinetako lanik gorrotagarriena zaborrak kanpora ateratzea da"***

29. orrialdean.

# orain dela...

**BERGARAN GERTATUA**

***1880.*** Uztailaren 4ean Melchor Sanchez Toca mediku bergararra hil zen 76 urte zituela. Nazioarte mailan zirujanorik onenetakoa izan zen eta Espainiako Isabel II.a erreginaren kamara medikua izan zen. Medizina Errege Akademiako kidea izan zen 43 urtez eta zazpi aldiz hautatua erakundearen lehendakari izateko. San Lorentzon egiten ari diren etxe unifamiliarrak bukatzen dituztenean bere izena hartuko du bertako kale batek.

**EUSKAL HERRIAN GERTATUA**

***1978.*** Uztailaren 8an San Ferminetan, poliziaren erasoaren ondorioz, hildako bat eta 150 zauritu izan ziren.

**MUNDUAN GERTATUA**

***1904.*** Uztailaren 7an Trenbide Transiberiarraren lanak (8.314 kilometro) bukatu ziren.

***1950.*** Uztailaren 7an koloretako telebistaz lehen saioa igorri zen Estatu Batuetan.

## zozketak

**BONO LOTO**

**Eguakitza 3**
2-6-11-25-42-44 (osag.28/er.9)

**Astelehena 6**
2-12-26-35-42-48 (osag.29/er.0)

**Martitzena 7**
8-14-26-33-36-48 (osag.4/er.5)

**Eguaztena 8**
4-12-13-22-25-48 (osag.2/er.6)

**PRIMITIVA**

**Zapatua 4**
2-3-5-7-8-25 (osag.30/er.5)

**Domeka 5** *Gordoa*
4-5-20-30-42-48 (osag.38/er.8)

**ONCE**

**Eguakitza 3:** 11.667 (K. seriea: 024)
**Astelehena 6:** 08.652
**Martitzena 7:** 04.958
**Eguaztena 8:** 72.096

## Eguraldia

*Igeldoko metereologi behatokia*

Hodeiak nagusituko zaizkigu astebukaeran. Eguakitz arratsaldean eguraldiak hobera egingo du baina zapatuan berriz ere estalita agertuko zaigu zerua eta euria egin dezake. Domekan antzerako eguraldia izango dugu.

## Ilargiaren aldiak

Ilbete: uztailak 9

Ilbehera: uztailak 16

Ilberri: uztailak 23

Ilgora: uztailak 31

## Eguzkia

*Domeka, uztailak 12*

Sortu: 06:57

Gorde: 21:47

## Tenperaturak eta euria Bergaran

*Luis Mari Agirre*

| | max. ºC | min. ºC | *euria l/m²* |
|---|---|---|---|
| **Eguena 2** | 26 | 14 | *0,3* |
| **Eguakitza 3** | 23 | 14 | - |
| **Zapatua 4** | 23 | 10 | - |
| **Domeka 5** | 25 | 14 | - |
| **Astelehena 6** | 30 | 14 | *5,2* |
| **Martitzena 7** | 21 | 16 | *2,4* |
| **Eguaztena 8** | 22 | 15 | - |

# bertako berbak

*Juan Martin Elexpuru*

**Aixa**

Esnez, irinez eta azukrez egiten den ore gozoa. *Papilla.*
*- Aixa gustora jaten giñuan umetan.*



JOSU OKINA

# hamaika ikusteko jaio ginen!

## Robot zirujanoa

Medikuak gerra-lekuetan arriskuan egon ez daitezen, Chris Kaufmann doktoreak TeSS robota asmatu du. TeSSa urrutiko kontrol bidez dabil. Zirujanoak hiru dimentsioko monitore baten bitartez kontrolatzen du lana eta ordenagailuak eskuaren mugimentu guztiak imitatzeko ahalmena duen sistema dauka. Hamar urte barru puntu-puntuan izango ei da teknika.

# Farmaziak

**Eguakitza 10:**
MOZOS. *San Pedro 4. Tf. 943 76 12 15.*

**Zapatua 11:**
CAMACHO. *Oxirondo 4. Tf. 943 76 11 74.*

**Domeka 12:**
CAMACHO. *Oxirondo 4. Tf. 943 76 11 74.*

**Astelehena 13:**
PUY. *Barrenkalea 25. Tf. 943 76 16 87.*

**Martitzena 14:**
GUALLAR. *S. Antonio 5. Tf. 943 76 11 05.*

**Eguaztena 15:**
ESTELLA. *Matxiategi 5. Tf. 943 76 19 63.*

**Eguena 16:**
MOZOS. *San Pedro 4. Tf. 943 76 12 15.*
GAUEZ: RUIZ, *Arrasate. Tf. 943 79 14 09.*

# Ogia

**Domeka 12:** Konde.

# Telefonoak

| | |
|---|---|
| **OSASUNA / LARRIALDIAK** | |
| SOS deiak | 008 |
| DYA | 943 78 71 57 |
| Gurutze Gorria | 943 76 55 76 |
| Larrialdiak | 943 76 12 94 |
| Anbulatorioa (txanda) | 943 76 24 40 |
| Anbulantzia | 943 55 49 62 |
| Udaltzaingoa | 943 77 91 06 |
| Ertzaintza | 943 76 53 40 |
| Suhiltzaileak | 943 78 28 00 |
| Osasun Etxea | 943 76 24 40 |
| Arrasateko ospitala | 943 79 53 00 |
| Asepeyo | 943 76 16 43 |
| Pakea | 943 76 13 49 |
| Angiozarko medikua | 943 78 90 27 |
| Antzuolako medikua | 943 76 62 23 |
| **GARRAIOAK** | |
| Euskotren | 943 45 01 31 |
| PESA | 902 10 12 10 |
| Taxiak | 943 76 19 50 |
| RENFE | 943 28 35 99 |
| **UDALA** | |
| Udaletxea | 943 77 91 00 |
| Udal Artxiboa | 943 77 91 32 |
| Igerilekuak | 943 76 20 51 |
| Kultur Etxea | 943 77 91 58 |
| Liburutegia | 943 77 91 62 |
| Mizpirualde Egoitza | 943 76 13 68 |
| **BESTELAKOAK** | |
| Epaitegia | 943 76 14 92 |
| Erregistroa | 943 76 13 15 |
| Jardun | 943 76 36 61 |
| Jubilatuen Etxea | 943 76 21 40 |
| Postetxea | 943 76 26 85 |

## zorion agurrak



**Jon Ander Roman**
Uztailaren 7an
5 urte. Zorionak!
Gurasoak.



**Elisabeth Unamuno**
Uztailaren 8an
29 urte. Zorionak!
Etxekoak



**Alberto Bolaños**
Uztailaren 11n
urtebetetzea.
Zorionak!
Emaztea eta alabak



**Ander Telleria**
Uztailaren 12an
6 urte. Zorionak!
Etxekoak.



**Sonia Anton**
Uztailaren 7an
18 urte. Zorionak!
Koadrilakoak.



**Maidere San Torcuato**
Uztailaren 12an
2 urte. Zorionak!
Familia osoa.



**Ainara Irazabalbeitia**
Uztailaren 12an
urtebetetzea. Zorionak! Familiakoak.



**Josu Marzo**
Uztailaren 15ean
3 urte. Zorionak!
Familiakoak.



**Jesus Mari Prado**
Uztailaren 15ean
urtebete. Zorionak!
Gurasoak eta familiakoak.



**Maribel Ramirez**
Uztailaren 12an
25 urte. Zorionak!
Mertxe, Manu, Koldo eta Jesus Mari.



**Pablo Hernando**
Uztailaren 12an
52 urte. Zorionak!
Marina.



**Saioa Zumelaga**
Uztailaren 9an
10 urte. Zorionak!
Katabixako senideak.



**Marina Madariaga**
Uztailaren 12an
10 urte. Zorionak!
Familiakoak eta ahizpa Nora.



**Antolin Marchena**
Uztailaren 9an
urtebetetzea.
Zorionak!
Etxekoak.



**Maite Santa Cruz**
Uztailaren 16an
10 urte. Zorionak!
Familiakoak.



**Gonzalo Ena**
Uztailaren 13an
6 urte. Zorionak!
Etxekoak.



**Aritxo**
Uztailaren 6an
16 urte. Zorionak!
Etxekoak eta koadrilakoak.



**Felix Alonso**
Abuztuaren 9an
46 urte. Zorionak!
Etxekoak.



**Epi**
Uztailaren 8an 27 urte. Zorionak! Antzuolako etxekoak, lagunak eta Soraia.



**Eder Rozados**
Uztailaren 22an
5 urte. Zorionak!
Familiakoak.



**Ion Ugarte**
Uztailaren 10ean
8 urte. Zorionak!
Iosu, aita eta ama.



**Saioa Arana**
Uztailaren 11n
15 urte. Zorionak!
Familiakoak.



**Neritzel Albisua**
Uztailaren 16an
10 urte. Zorionak!
Etxekoak.



**Maria Fernandez**
Uztailaren 8an
urtebetetzea.
Zorionak!
Jon eta Ane.



**Oihana Garate**
Uztailaren 3an
urtebete. Zorionak!
Gurasoak, Maitane eta Irati.



**Maitane Garate**
Uztailaren 13an
5 urte. Zorionak!
Gurasoak, Irati, Oihana eta Alasne.

*URTEURRENA*

# Maria Nieves Argarate Berasaluze



Lehen urteurreneko meza
domekan, uztailak 12,
eguerdiko 13:00etan, Santa Marinan.

*Elizkizunetara joango zaretenoi,
aldez aurretik eskerrik asko familiakoen partez.*

### jaiotakoak

**Lorea Vicente Jauregi** Ekainak 30.
**Marina Juaristi Berasategi** Uztailak 2.

### hildakoak

**Jose Antonio Zabala Unzurrunzaga**
Uztailak 3, 78 urte.
**Tiburcio Romero Tejado**
Uztailak 4, 40 urte.
**Vicenta Larrañaga Uribetxeberria**
Uztailak 6, 89 urte.
**Zoilo Balsera Pozo**
Uztailak 6, 75 urte.
**Julian Leturia Mendiaraz**
Uztailak 8, 84 urte.

### PESA autobusak

**Bergara-Antzuola.** *Lanegunak:* 08:00, 09:00, 11:00, 14:00,15:00, 17:05, 18:00, 20:30. *Zapatuak:* 08:00, 09:00, 14:00, 18:00, 20:30. *Domeka eta jaieg.:* 09:30, 10:00, 18:00, 18:30.

**Antzuola-Bergara.** *Lanegunak:* 08:30, 12:05, 18:00, 19:35. *Zapatuak:* 08:30, 12:05, 18:00, 19:35, 20:40. *Domeka eta jaieg.:* 10:00, 18:00, 18:35, 22:05.

**Bergara-Arrasate-Eskoriatza.** *Lanegunak:* 07:35, 08:35, 09:35, 10:35, 11:35, 12:35, 13:35, 14:35, 15:35, 16:35, 17:35, 18:35, 19:35, 21:05*, 21:35* (*Arrasateraino). *Zapatuak:* 09:35, 11:35, 13:35, 15:35, 16:35, 17:35, 18:35, 19:35, 21:05*, 21:35* (*Arrasateraino). *Domeka eta jaiegunak:* 09:15*, 11:15, 14:35, 16:35, 18:35, 21:05*, 21:35* (*Arrasateraino).

**Bergara-Gasteiz.** *Lanegunak:* 06:45, 08:15, 09:15, 11:15, 14:15, 15:15, 19:00, 19:15, 21:15. *Zapatuak:* 07:15, 08:15, 09:15, 11:15, 14:15, 15:15, 19:00, 19:15, 21:15. *Domeka eta jaiegunak:* 09:15, 11:15, 14:15, 15:15, 17:15, 19:00, 19:15, 21:15.

**Gasteiz-Bergara.** *Lanegunak:* 05:45, 06:30, 07:30, 08:30, 12:30, 14:30, 16:30, 18:30, 19:30, 20:30. *Zapatuak:* 06:30 (Arrasateraino), 07:30, 08:30, 12:30, 16:30, 18:30, 19:30, 20:30. *Domeka eta jai egunak:* 08:30, 09:00, 10:30, 12:30, 16:30, 18:30, 19:30, 20:30.

**Arrasate-Bergara.** *Lanegunak:* 06:05, 06:30, 07:05, 07:20, 08: 05, 08:20, 09:05, 09:20, 10:05, 11:05, 12:05, 13:05, 13:20, 14:05, 14:20, 15:05, 16:05, 17:05, 17:20, 18:05, 19:05, 19:20, 20:20, 21:20. *Zapatuak:* 07:20, 08:05, 08:20, 09:20, 10:05, 12:05, 13:20, 14:05, 14:20, 15:05, 16:05, 17:05, 17:20, 18:05, 19:05, 19:20, 20:05, 20:20, 21:20 . *Domeka eta jaiegunak:* 09:20, 09:50, 11:20, 13:05, 13:20, 15:05, 17:05, 17:20, 19:05, 19:20, 20:05, 20:20, 21:20.

**Bergara-Oñati.** *Lanegunak:* 07:35, 09:35, 13:35, 16:35, 18:35, 19:35, 20:45. *Zapatuak:* 20:45. *Domeka eta jaiegunak: ez dago zerbitzurik.*

**Oñati-Bergara.** *Lanegunak:* 07:10, 08:00, 13:10, 13:55, 16:00, 17:10, 19:10. *Zapatu, domeka eta jai egunak: ez dago zerbitzurik.*

**Bergara-Eibar.** *Lanegunak:* 06:20, 07:20, 08:20, 09:20, 10:20, 11:20, 12:20, 13:20, 14:20, 15:20, 16:20, 17:20, 18:20, 19:20, 20:20. *Zapatuak:* 08:20, 10:20, 12:20, 14:20, 15:20, 16:20, 17:20, 8:20, 19:20, 20:20. *Domeka eta jaiegunak:* 09:35, 11:35, 13:20, 15:20, 17:20, 19:20, 20:20.

**Eibar-Bergara.** *Lanegunak:* 06:15, 07:00, 08:00, 09:00, 10:00, 10:45, 11:00, 12:00, 13:00, 14:00, 14:45, 15:00, 16:00, 17:00, 18:00, 18:45, 19:00, 20:30, 21:00. *Zapatuak:* 06:45, 09:00, 10:45, 11:00, 13:00, 14:45, 15:00, 16:00, 17:00, 18:00, 18:45, 19:00, 20:30, 21:00. *Domeka eta jaiegunak:* 08:45, 10:45, 14:00, 14:45, 16:00, 16:45, 18:00, 18:45, 20:30, 20:45, 21:00.

**Bergara-Donostia (Autopistatik).** *Lanegunak:* 06:45, 08:35, 13:35, 14:35, 19:35. *Zapatuak:* 07:35, 08:35, 13:35, 14:35, 19:35. *Domeka eta jaiegunak:* 10:05, 19:35.

**Bergara-Donostia (Tolosatik).** *Lanegunetan:* 09:00, 18:00. *Zapatuak:* 09:00, 18:00. *Domeka eta jaiegunak:* 10:00, 18:00.

**Donostia-Bergara (Autopistatik).** *Lanegunak:* 08:15, 12:30, 15:00, 18:00, 19:30, 20:45. *Zapatuak:* 08:15, 12:30, 18:00, 19:30, 20:45. *Domeka eta jaiegunak:* 18:00, 20:45.

**Donostia-Bergara (Tolosatik).** *Lanegunak:* 07:00, 16:30. *Zapatuak:* 07:00, 16:30. *Domeka eta jaiegunak:* 08:30, 16:30.

**Bergara-Bilbo.** *Lanegunak:* 07:15, 08:40, 13:45 (Elgetaraino), 14:30, 18:10. *Zapatuak:* 07:15, 08:40, 14:30, 18:10. *Domeka eta jaiegunak:* 10:10, 14:30, 18:10, 19:15.

**Bilbo-Bergara.** *Lanegunak:* 08:00, 17:00. *Zapatuak:* 08:00, 17:00. *Domeka eta jaiegunak:* 09:00, 17:00.

# MUSIKA

▶ Jam aretoa. **Napalm Death, Green ripper eta Eraso** gaur, eguakitza, 22:00etan.

▶ **El indio radioactivo y su tribu descarriada** gaur, 23:00etan Pol-Polen.

▶ **Arriolako 1. Musika Klasiko Emanaldia**. Kantu eta piano errezitala gaur, eguakitza, 22:00etan Elorrioko San Agustin elizan. Zapatuan, toki berean, 20:30etan, **Ars Viva Orfeoia**ren emanaldia.

▶ **Hip hop jaialdia** Elorrioko Gaztetxean bihar, zapatua, 16:00etan.

▶ **Rogelio Botanz** domekan 22:00etan Soraluzeko Gaztelupe tabernan.

# ERAKUSKETAK

▶ **Josean San Torcuato**ren plumilak Nahikari tabernan.

▶ **Juan Jose Altuna**ren margoak Elorrioko Arriolan.

▶ **Ricardo Azkargorta**ren margoak Donostiako Olaetxea galerian martitzenera arte.

# IKASTAROAK

▶ **Piraguismo ikastaroa** Albinan, uztailean. 943 76 44 65 (Alex).

IKUSKIZUNA

## *Dana lanbrotute ikustot*

**Noiz: eguaztenean, 22:00etan, Kartzelan**
**Sarrera: doan.**

Irudiak, poesia, musika edota antzerkia tartekatzen dituen muntaia udaberrian estreinatu zen Soraluzen eta harrez gero Euskal Herriko hainbat tokitan aurkeztu izan da. Gaztelupeko Hotsak elkartearen eskutik, Koldo Izagirre, Jose Luis Otamendi eta Iñigo Aranbarri poetak, Mattin eta Xabi Ubeda artistak, Deabruak Teilatuetan musika taldea eta Aintzane Astigarraga antzezlea dira ikuskizun honetako partaideak. Muntaia honen sortzaileek adierazi bezala, "Mitxel Sarasketa eibartarra espetxean denbora gehien daraman euskal presoa da eta katibutzaren katea trinkoaren lehen muturra baino ez da. Gertaera horrek merezi du, orain baino lehen bezala, gaur egunean ere hitzak jar diezazkiogun, merezi ditu irudi batzuk, merezi du bere doinuak izan ditzan. Sentimendu zaparradak dira adierazi gura direnak, ez arrazoiak; kantuak, poemak, irudiak eskaini gura dira. Gizakiak hitzetan eta begietan bilatzen du egunerokotasunaren neurria. Ikusmira, ordea, gehienetan ez da argia izaten, lausoa baizik".

Joseba Sarrionandiaren "Kiromantzidxa" izenburuko poema da ikuskizun honetako ardatza. Bertan, euskal iheslari bati iragana eta geroa igartzen dizkion kiromante baten (Aintzane Astigarraga) istorioa azaltzen da. Poema honi, ikuskizunean zehar, Izagirre, Otamendi eta Aranbarriren poemak, Deabruak Teilatuetan taldearen abestiak eta Mattin eta Ubedaren diapositibak lotuko zaizkio.

Muntaia hau ikusteko azken aukeretako bat. Bezperan, martitzenean, Elgetako Gaztetxean ere izango da, 20:00etan. B




Irudiak, poesia, musika eta antzerkia dira muntaiaren osagaiak.

# LEHIAKETAK

▶ **Aramaioko Sagitario saria**, bidaiari haundien literatur lehiaketa. Partaideek bidaian zehar bizitakoa kontaketa literario batean aurkeztu beharko dute. Lanak euskaraz zein gazteleraz egin ahal izango dira. Kategoria bakoitzeko kontaketa onenak 100.000 pezetako saria jasoko du. Lanak aurkezteko epea irailaren 15ean bukatuko da, helbide honetara bidali beharko direlarik: Udaletxea. 01160 Aramaio. Araba.

▶ **Jokin Zaitegi XII. Itzulpen Laburren Sariketa**. Aurtengo gaia

ARGI PLASTIC
PVC, aluminio termikoa, egurra, poliuretanoa... Leihoak, ateak, manparak...
Eska ezazu aurrekontua konpromezu barik
Erakusketa: Masterreka 14 behea
BERGARA
Tf.: 943 76 55 02 Faxa: 943 77 11 30

AZPEITXI
Jatetxea
Aranerreka 13 behea ☎ 943 76 55 00

Aldoka Maldoka
TABERNA
Kruz Gallastegi BERGARA

librea izango da eta munduko edozein hizkuntzatatik itzulitako idazlanak aurkeztu ahal izango dira. Testuen luzera 15-30 orrialde bitartekoa izango da. 200.000 eta 100.000 pezetako bi sari banatuko dira. Lanak urriaren 31 baino lehen aurkeztu beharko dira. 943 77 12 28.

## DEIAK

▶ **HBren 20. urteurrena**. Hitzaldi-solasaldia: "Dinamika berriaren azalpena: akordio nazional baterantz" gaur, eguakitza, 20:00etan Artatsen, presoen aldeko ohizko enkarteladaren ostean.

▶ **Peregrinazioa Arantzazuko santutegira eta Loiolako santutegira bisita** uztailaren 25ean. Irteera Bergaratik 9:30etan, autobus geltokitik. 12etan Meza Nagusia, 14:00etan bazkaria hospederian eta 17:30etan Loiolara irteera. Itzulera, 20:00etan. Autobus txartelak 850 pezetan eta erromesen bazkariak 1.800 pezetan salduko dira. Izen-ematea San Antonioko Agirrebeñan, Zubiaurreko Garitanon, Barrenkaleko Zatoian eta Matxiategiko Gube drogerian.

▶ Debagunek **"Itsasotik itsasora"** gazteei zuzendutako bizikleta martxa antolatu du abuzturako. Abuztuaren 1ean trena hartu eta Gironara heldu ondoren, bertatik Hondarribirainoko martxari hasiera emango zaio. Izenematea uztailaren 20ra arte zabalik. Argibideak Jardunen, 943 76 08 19 zenbakian.

▶ **Ipintza institutuan Batxilergorako matrikulazio kanpaina** zabalik uztailaren 16ra arte. Matrikula idazkaritzan egin ahal izango da 9:00etatik 13:30ak arte.

▶ **EGA** azterketa egiteko inpresoak eskuragarri izango dira Akulu AEK euskaltegian martitzenean eta eguaztenean. Argibideak 943 76 05 18.

▶ Alpino Gorlak eta Pol-Polek domekan **Arraras-Azpiroz** egun osoko mendi irteera egingo dute. Irteera goizeko 7etan Frontoitik. 943 76 48 51.

## JAIAK

▶ **San Kristobal**. Gaur eguakitza, 23:00etan, dantzaldia Zabaleta eta Imanolekin. Bihar zapatua, 16:00etan plater tiraketa eta gauez Musutruk taldearekin dantzaldia, goizalderarte. Domekan, 12:00etan Meza Nagusia, ondoren kotxeen bedeinkapena eta jarraian luntxa jubilatuentzat. Amaitzeko, trikitilari gazteekin erromeria eta jolasak.

## ZINEA

### KARTELDEGIA

**BERGARA. Novedades**
**Al caer el sol**
Eguakitza: 22:30.
Zapatua: 22:30.
Domeka: 17:30, 19:30, 22:15.
Astelehena, ikuslearen eguna: 19:30.

**ARRASATE. Alai zinema**
**Mensaka**
Eguakitza: 22:00.
**El final de la violencia**
Zapatua: 17:00, 19:30, 22:00.
Domeka: 17:00, 19:30, 22:00.
Astelehena: 19:00, 21:30.
Martitzena: 19:00, 21:30.

**ARRASATE. Monterron**
**Trainspotting**
Eguena: 22:30.

**EIBAR. Unzaga**
**El final de la violencia**
Eguakitza: 22:15.
Zapatua: 17:00, 19:30, 22:15.
Domeka: 17:00, 19:30, 22:15.
Astelehena: 19:30, 22:15.
Martitzena, ik. eguna: 19:30, 22:15.

**EIBAR. Rialto**
**La caja china**
Eguakitza: 22:15.
Zapatua: 17:00, 19:30, 22:15.
Domeka: 17:00, 19:30, 22:15.
Astelehena, ik.eguna: 19:30, 22:15.

**OÑATI. Santana**
**Heredaras la tierra**
Eguakitza: 22:30.
Zapatua: 22:30.
Domeka: 19:30, 22:30.
Astelehena: 19:30.

**ELORRIO. Arriola**
**El laberinto rojo**
Zapatua: 22:30.
Domeka: 20:00
Astelehena: 20:00.

**AZKOITIA. Baztartxo**
**Solo en casa 3**
Eguakitza: 22:00.
Zapatua: 22:00.
**Mercuryrising**
Domeka: 17:00, 19:30, 22:00.
Astelehena: 20:00.

### AL CAER EL SOL

***Zuzendaria:*** *Robert Benton.*
***Aktoreak:*** *Paul Newman, Susan Sarandon, Gene Hackman.*
*Harry Ross* (Paul Newman) erretiratuta dagoen detektibea dugu. *Jack* eta *Catherine Ames* senar-emazteek (Hackman eta Sarandon) agindu zioten lan batean zauritua gertatu zen eta ordutik beraien etxe azpian bizi da *Ross*. Lagun-minak egin dira eta *Jack* aktorea hil zorian dagoela, *Harry*ri azken mesede bat egin diezaiola eskatuko dio. *Gloria* izeneko emakume bati dirua entregatu beharko dio baina gauzak erabat okertuko zaizkio detektibeari...



### EL FINAL DE LA VIOLENCIA

***Zuzendaria:*** *Wim Wenders.*
***Aktoreak:*** *Bill Pullman, Andie McDowell, Gabriel Byrne.*
*Mike Max* biolentziaz beteriko filmeak egiten maisua da eta goiz batean, etxeko piszina ondoan lanean ari direla, hiru gauzetaz ohartuko da: *Cat* bere filmetako espezialistako batek istripu larri bat izan du; *Paige* bere emazteak utzi egin nahi dio eta, azkenik, FBIk, korreo elektronikoz, berari zuzendutako mezu misteriotsu bat bidali du...

BERRIGARAk ez du gerta litezkeen emanaldi aldaketen erantzukizunik.

Lazkano
KIROL OINETAKOAK ETA OSAGARRIAK
Barrenkalea 15-17. BERGARA.
Tf. 943 76 25 03

IRURAK PINTURAK O.E.
ERA GUZTIETAKO LANAK
PAPER PINTATUAK
MOKETA ETA SINTASOLA
HAREA ZORROTADA
IZTUKU ESPONJATUA
IZTUKU FALTSUA
AITZITURRI 6 • 286 POSTA KUTXA • 20570 BERGARA
TELEFONOA eta FAXA: 943 76 09 32

ETXAGI
JATETXEA
AFARIAK, BATAIOAK, JAUNARTZEAK, EGUNEROKO MENUA, GOSARIAK, BAZKARIAK...
Masterreka 8 ☎ 943 76 53 12

**PSE-EEko Zuzendaritza Batzordeak Jaurlaritzan EAJ eta EA alderdiekin osatzen zuen hirukoa haustea erabaki zuen aurreko astean. Hala ere, tripartitoak eutsi egingo dio oraingoz diputazioetan eta udaletan. Alvaro Esparza PSE-EEko Bergarako zinegotziarekin hitz egin dugu.**

ALVARO ESPARZA
PSE-EEko zinegotzia

# *"Legealdia amaitzear dagoenean, ez zait lojikoa iruditzen hirukoa apurtzea"*

**G.** Zela baloratzen duzu PSE-EEk Jaurlaritzan hirukoa apurtzeko erabakia?

**E.** Legealdia amaitzeko lau hilabete besterik ez dira falta eta ez nago ados hartutako erabakiarekin. PSE-EEko Biltzar-Ttipiko kide naizenez, erabakia onartu beharra daukat, baina ez nator bat. Gure alderdiko estatutuen arabera, erabaki hori Biltzar-Ttipiak hartu behar zuen, kongresuen arteko organurik garrantzitsuena da eta. Hori kontutan hartu barik, Zuzendaritza Batzordeak hartu du hirukoa hausteko erabakia. Nik tripartitoan sinisten dut. Egonkortasuna eta alderdien arteko konbibentzia izan behar dira erreferenteak, gobernua alderdi abertzale eta ez abertzaleen artean eramateko.

**G.** Gipuzkoako sozialisten artean gertatu izan den moduan, apurketaren aurkakoa zara beraz...

**E.** Bai. Nire iritzia hausturaren kontrakoa da. Gure alderdiak 12 urte daramatza gobernuan, lehenbizi EAJrekin eta ondoren hirukoan. Horrenbeste urtetako konbibentzia horrela apurtzea ez zait lojikoa iruditzen. Esaten digute EAJ HBrengana hurbildu izana eta EAJk Konstituzioa ez onartzea izan direla apurketa egiteko arrazoiak, baina ez naute konbentzitu. Alde batetik, EAJk aspaldi azaldu zuen Konstituzioarekiko abstentzioa eta ez da ezer gertatu urte guzti hauetan. Bestetik, presoei buruzko gaiak, intsumisioa edo benetan interesatzen zaizkion gaiak aztertzen direnean, HBk Parlamentura jotzen du bere iritzia emateko eta zenbaitetan alderdi abertzaleekin bat egin du. Orain gutxi, Mutrikun izandako Batzar Orokorretan adibidez, HB, EA, IU eta gure alderdia ados agertu ziren 35 orduko lan astea aldarrikatzearekin. Badirudi apurketa honekin alderdi abertzaleekin moztu nahi izan dela. Ni elkarrizketaren aldekoa izan naiz beti baina HBren kasuan, beti ere gizaki guztien bizitza eskubidea jasotzen duen Giza Eskubideen 3. artikulua jartzen dut aurretik.



Alvaro Esparza PSE-EEko zinegotzia Ongizate Batzordeburua dugu.

**"Nik tripartitoan sinisten dut. Egonkortasuna eta alderdien arteko konbibentzia izan behar dira elkarrekin gobernatzeko erreferenteak"**

**G.** Jaurlaritzan bakarrik desegin da hirukoa.

**E.** Kontua ez da izan Gobernuan jestio txarra egin izana. Beraz, apurketa diputazioetan eta udaletan ere eman beharko zen, baina ez da halakorik erabaki. Bizkaian eta Gipuzkoan mapa politikoa nola dagoen ikusita, legealdia amaitzeko urtebete falta denean, nahaste-borraste bat izango litzateke neurri hori, zenbait udaletan gobernua zintzilik geratzeko arriskua legoke. Nik uste dut horregatik ez dela erabaki hori hartu. Apurketa egin baino, hobe izango zen urriko hauteskundeetako emaitzen ondoren, neurriak hartzea.

**G.** Bergaran, Jaurlaritzan hirukoa apurtzeak zelako eragina izan dezake?

**E.** Ez da inolako arazorik izango. Argi geratu da erabakia Jaurlaritzara mugatuta dagoela. Honek ez dauka udalen funtzionamenduan zertan eragina izan.

**G.** Bestalde, zuen alderdian zeresan ugari eman dute alderdi barruko hauteskundeek. Bergaran zer nolako emaitzak izan ziren?

**E.** Alde batetik, hauteskunde orokorretarako PSOEren hautagaia aukeratzeko orduan, Bergaran, Borrellek irabazi zuen. Rosa Diez eta Nikolas Redondoren arteko aukeraketan, herriko afiliatuen artean, Rosa Diez nagusitu zen. Bergaran 22 afiliatu gara eta, beraz, aldea txikia izan zen. B

# Abiadura Haundiko Trenaren kontrako firma bilketa asteburuan

**Hil honen 24ean amaitzen da Abiadura Haundiko Trenaren proiektuari alegazioak aurkezteko epea eta Angiozarko Bailarako Batzordeak, Jaurlaritzan hainbat alegazio aurkeztuko dituela aurreratu du.**


Abiadura Haundiko Trena Angiozarko bailaratik ez pasatzea eskatuko da.

Egun berean, uztailak 24, Deba Garaiko Mankomunitateak batzarra egingo du zer alegazio aurkeztu erabakitzeko. Kontu honetan postura kontrajarriak daude Mankomunitatean. Trenbidearen trazatua Angiozarko bailaratik egitea eta Angiozarren apeadero bat egitea eskatzearen alde agertu da Mankomunitatea. Bestalde, Bergarako Udalak trazatua Epeletik egitea eskatu du.

Mankomunitateak gaiari buruzko ikerketa egitea eskatu zion urte hasieran LKS enpresari eta honek egindako txostenari jarraituz, Abiadura Haundiko Trenaren trazatua Epeletik egitea eskatzea erabaki zuen. Bergarako Udalak, Mankomunitatearekin bat egin eta alegazioak Jaurlaritzara bidaltzea erabaki zuen martxoan.

Halere, Mankomunitateak iritziz aldatu eta trenbide berria Angiozarko bailaratik egitea eta Angiozarren apeadero bat egitea eskatzea erabaki berri du. Bergarako Udala eta Angiozarko Bailarako Batzordea horren kontra azaldu dira.

**Firma bilketa astebukaeran**

Angiozarko Bailarako Batzordeak, bestalde, AHTren aurkako eta trazatua Angiozarretik egitearen kontrako firma bilketa egingo du asteburuan Aldai-Egia auzoan San Kristobalgo jaiak direla aprobetxatuz. Firma bilketarekin batera, trenbide berriak bailaran izango duen eraginari buruzko planoak erakutsiko dira.

Bestalde, Jaurlaritzan proiektuaren kontrako alegazioak aurkeztuko dituztela aurreratu dute Angiozarko Bailarako Batzordeko kideek. "Alde batetik, AHTren premiarik ez dugu ikusten, bailarak ez duelako ezer irabazten eta, bestetik, trazatua Angiozarretik egitearen kontra gaude" adierazi digu Gorka Elortza Angiozarko auzo alkateak.

Trenbidea Epeletik egitea edota, bestela, trazatua goragotik, mendi aldetik, egitea proposatzen dute Angiozarko Bailarako Batzarreko kideek: "era honetan, trena zati gehiagotan lurpean joango litzateke, desmonteak ebitatuko lirateke eta Eudi baserria ez litzateke botako. Gainera teknikoki posible da" esan digu Gorka Elortzak. Bestalde, zapaturako AHTren kontra Durangaldean iragarri den martxarako deia zabaldu du Angiozarko Bailarako Batzarrak. B


Deba ibaiaren egoerarengatik protesta egiteko bizikleta martxa domekan.

## Debara XVIII. bizikleta martxa ekologista izango da domekan

**Azken urteetan** sasoi honetan ohiko bihurtu den Debara bizikleta martxa izango da domeka honetan. Deba errekaren egoera txarra gogora ekartzeaz gain, bi aldarrikapen nagusi izango ditu aurten martxa ekologistak: alde batetik, Eibar-Gasteiz autopistaren kontrakoa eta, bestetik, Mutriku eta Deba lotuko dituen errepide berriak Debako paduretan sortuko dituen kalteen aurrean protesta egitea. Bizikleta martxa Deba bailarako Gazte Asanbladak, Martinete taldeak eta Eguzki eta Eki talde ekologistek antolatu dute. Bergaran goizeko 10:30etan egingo da irteera San Martin plazatik. B



41 urteko bergararra Donostiako Kimika eta Fisika fakultateko dekanordea da. AYGÜES

# J. M. Ugalde bergarararentzat Xabier Maria Munibe saria

## Kimika kuantikoan egindako lanagatik saritu dute

**Jesus Mari Ugalde** bergararrak jasoko du aurten Eusko Legebiltzarrak eta Euskal Herriko Adiskideen Elkarteak banatzen duten Xabier Maria Munibe saria.

Jesus Mari Ugalde (41 urte) Fisika eta Kimika katedradunak, EHUko Donostiako fakultatean egiten du lan (dekanordea da) eta kimika kuantikoan egindako lanagatik jasoko du saria. Halere, ikerketa lan jakin bat baino gehiago, zientziaren arloan eginiko ibilbide profesionala saritu du epaimahaiak. Ugalde Kimika zientzietan lizentziatu zen Valladolideko unibertsitatean 1981ean eta, harrez gero, Donostiako fakultatean aritu da. Estatu Batuetako eta Kanadako hainbat unibertsitatetan egin izan ditu ikerketa lanak.

Kimika kuantikoan aditua da eta laborategian egin ezin diren probak egiten aritzen da ordenagailuaren bitartez. Galaxiak nola sortzen diren, hau da, unibertsoan molekulak nola eratzen diren, aztertu izan du.

Sari hau jasotzea ohore bat dela esan du Jesus Mari Ugaldek eta berari emandako saria baino gehiago, fakultateari eta berak lan egiten duen departamenduko kide guztiei emandakoa dela azpimarratu du. B

## Gauez piszinetara sartzen diren ezezagunei oharra

**Victoriano** Gallastegi alkateak prentsa ohar baten bitartez adierazten duenez, azkenaldian, gauetan, hainbat pertsona sartu ei dira kanpoko piszinetara euren beharrak bertan egitera, e.a. Hori dela eta, alkateak pertsona horiei eskatu nahi die "hori egiteari laga diezaiotela, egiten dutena herritar guztien kalterako delako". Bestalde, gauean bainuontziak garbitzeko aparailuak argi indarra erabiltzen duenez, edozein arrazoirengatik uretara sartzea edo jaustea oso arriskutsua dela gogorazi nahi du alkateak.

## Beasain-Durango errepide berria 2009ra arte ez da Bergarara helduko

**II. Errepide** Plan Orokorrean jasotzen denez, Beasain-Durango errepide berria ez da egingo 2009. urtera arte, hasiera batean aurreikusita baino bederatzi urte beranduago, diru arazoak direla medio.

Jose M. Martin
pinturak - paper pintatuak
sintasola - moketak - gotelea
pintura industriala
Errekalde auzoa 5, 1.a ANTZUOLA
Tf. 943 76 62 02 / 908 77 64 91

GAZTELU
BURDINAKI DENDA
Mintegi 1 • Tf. 943 76 32 48 / 943 76 34 50 • BERGARA

TOKI-ONA
Bodegoia-taberna
Eguneroko janariak / Txitxizotzak
Kazolatxoak / Txabierroak
Matxiategi 1 Tf. 943 76 39 53

# Eguraldi eta giro ezinhobea, eta jende asko San Martzialen

## Ehundaka eta ehundaka bergarar erromerian

**Ohiturari eutsiz** ehundaka eta ehundaka bergarar bildu ziren domekan San Martzialen. Gainera, eguraldiak lagundu egin zuen eta oso giro polita izan zen. Burukoak eta eguzkitako betaurrekoak nagusitu ziren.

Eguna normaltasun osoz igaro zela esan daiteke: ohiko burdi igoera, meza, aurreskua eta bertsolariak goizean eta haur jolasak, herri kirolak eta erromeria arratsaldean; iluntze partean, jaitsiera. Esan behar da beste urte batzuetan baino jende gutxiagok hartu zuela parte jaitsieran.

Sokatira txapelketan, mutiletan, Euskolabel taldea nagusitu zen eta Mongatxurrak bigarren sailkatu zen. Txinga eroate txapelketan Unai Alberdi nagusitu zen, ia sei plaza (24 metro inguru) egin zituen esku bakoitzean 50 kiloko txinga hartuta.

Ez zen aipatzeko gertaerarik izan, baina Gurutze Gorrikoek nahikoa lan izan zuten, batez ere kristalarekin egindako ebakiak sendatzen. Bestalde, musikarientzako kamioiaren gurpilak zulatuta agertu ziren domekan. Aste honetan San Martzialeko zelaiak garbitzen jardun dute Garbileko eta Udaleko langileek. Ingurua errespetatzeko eta hondakinak dagozkien tokietan batzeko askotan eskatu zaie herritarrei, baina ez ei ditugu dei horiek aintzakotzat hartzen eta erromeriaren biharamonean itxura tamalgarria erakusten du San Martzialeko ingurune ederrak. B



Ohizko aurreskuak ikusmin haundia sortu zuen.



Bazkaldu aurretik lagun artean kantuan.



Eguna luzea izaten da eta ondo jatea beharrezkoa.



Arratsaldean sokatira: indartsuenak nagusi.

### Jose Antonio Zabala hil zen eguakitzean

**Jose Antonio** Zabala Unzurrunzaga, Bergarako alkate izandakoa hil egin zen joan zen eguakitzean 78 urte zituela. Enpresari eta abokatua, demokrazia garaiko lehen alkatea (EAJ) izan zen eta 1979 urtetik 1982ra arte egon zen alkatetzan. Industria mailan, politikan, kulturan, hezkuntzan zein gizarte mailan lan egin zuen.

Enpresa munduan, Torunsa lantegia sortu zuen Soraluzen bere osaba Rafael Unzurrunzagarekin. Bestalde, atzeratuei lan egiteko aukera emateko San Migel Patronatua sortu zuen 1971 urtean. Lehenengo lantegia Bergarako Seminarioan kokatu zuten eta bigarrena Donostian. Gaur egun, Gureak lantegi babestuak izenburupean, beste 13 tokitan daude eta guztira 1.000 bat langile ditu.

Promoción Culturaleko sortzaileetakoa izan zen eta baita UNEDeko Patronatuko presidentea. Politika munduan, Bergarako alkate eta EAJko bozeramale izan zen Gipuzkoako batzarretan; alderdia zatitu zenean, EAko juntero ere izan zen.

Orain dela gutxira arte, Euskal Herriko Adiskideen Elkarteko diruzain, Izurun fundazioko presidenteorde eta Gureak elkarteko batzordekide izan da. Bere aldeko hileta elizkizunak zapatuan egin ziren San Pedro elizan.

# Berrigara

331 zenbakia.
1998ko uztailaren 10a.

**Errotalde Jauregia. 20570 Bergara**
**Telefonoa: 943 76 03 97.**
**Faxa: 943 76 29 77**
**E.mail: berrigar@sendanet.es**
**Argitaratzailea: JARDUN Elkartea**

**Zuzendaria:** Eneko Azkarate. **Erredakzioa:** Edu Mendibil, Aitziber Azkondo. **Maketazioa:** Iñaki Iturbe. **Publizitatea:** Kristina Romero. **Harpidetza:** Gorka Elortza. **Testuen zuzenketak:** Estepan Plazaola, Alex Labaien. **Erredakzio kontseilua:** Miguel Angel Elkoroberezibar, Alex Labaien, Gorka Elortza. **Komikiak:** Bittor Rodriguez, Gorka Ortega & Jon Alvarez, Alex Ugalde, Unai Azkarate. **Kolaboratzaileak:** Juan Martin Elexpuru, Josu Okina, Luis Mari Agirre, Imanol Sorondo. **Banaketa:** Txantxangorri taldea. **Inprimategia:** Gertu Koop. Elk. (Zubillaga. Oñati).

Azaleko argazkia: Berrigara.

Tirada: 5.100 ale.


Copyright: BERRIGARA.
Lege gordailua: SS 50/91.
ISSN: 1130-6599

BERRIGARAk ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

**Erakunde hauen laguntzaz:**

**Bergarako Udala** — **Gipuzkoako Foru Aldundia** — **Eusko Jaurlaritzako Kultura saila**

## gutunak

**Ezer adierazi nahi baduzu, ekarri edo bidali iezaguzu zure gutuna. Postaz edo eskuan: Berrigara astekaria, Errotalde Jauregia z/g 20570 Bergara. Faxez: 943 76 29 77. Posta elektronikoz: berrigar@sendanet.es (Gutunak identifikatu egin behar dira).**

### DIRU PUBLIKOAREN ERABILERA ARGIA ETA GARBIA

Foru Diputatuen intimitatea ukitzen dutela, hori izan da Gipuzkoako diputatuek, beren Visa txartelarekin egiten dituzten gastuak ez erakusteko erabili duten arrazoia.

HBko juntero taldea urteetan dabil informazio hau eskatzen. Hain zuzen ere diputatu bakoitzak (PNV, 3; EA, 3; PSOE, 3) Visa txartel bat du bere izenean behar duenean behar dituen gastuak bertatik ordaintzeko. Eta inork ez daki zertan gastatzen diren. Hori beraien intimitatea ukitzea omen da.

Epaitegietara ere jo genuen eta Euskal Herriko Justizia Auzitegiak baliogabetu egin zuen diputazioaren ukatzea. Halere, berriro ezezkoa esan digute, ez dizkigutela fakturak erakutsiko.

Inork kontrolatzen ez dituen gastu batzuen aurrean gaude. Gastu erreserbatuen aurrean, eta hor diputatu bakoitzak pertsonalki, beraien alderdiak, eta Diputatu Kontseiluak orokorrean dute erantzunkizuna. Zer gordetzen dute?

Beraien diruarekin nahi dutena egin dezatela eta nahi dutenean gastatu, baina diru publikoarekin, gipuzkoar guztion diruarekin argi..., eta garbi jokatu behar dute.

*Jesus Mari Garitano*
*(HBko batzarkidea eta zinegotzia)*

## tira biraka: **alex ugalde**



atrebentzia ezpada

## Zeri diozu beldurra?



**Francisco Valor**

Momentuz ez diot ezeri beldurra. Gaur egun nahiko ondo doakit bizitza; urtebete egon naiz lan barik, baina zorionez lana topatu eta kezka hori joan zait.



**Victoria Larrañaga**

Beldurra. Zergatik beldurra? Nik ez diot ezeri beldurra, gauzak datozen moduan hartu behar dira. Alde horretatik nahiko trankil bizi naiz.



**Karlos Llobregat**

Nik ez daukat beldurrik ezerena. Gogorra naiz, eh? Beldurra, ezta Maria Santisimari ere! Heriotzari bai, beste batzuk ere bai. Baina joaten bagara, joan eta listo.



**Karmen Martos**

Nik ez diot ezeri beldurra. Heriotza badakigu egunen batean helduko dela eta, beraz, hobe gauzak patxadaz hartzea.



**Unai Garmendia**

Heriotzari beharbada. Beldurra hitza asko esatea da, baina bai. Gero badituzu kezkak: lana topatzea..., gauza asko dira eta maila ezberdinak.



**Karmen Martinez**

Ez daukat inolako beldurrik. Gauza bat da kezka batzuk izatea, baina hortik beldurra duzula esatera alde handia dago.

bai, esan!

**Gertaeraren bat salatu edo txalotu nahi baduzu, 943 76 03 97ra deitu eta sail honetan jasoko dugu zuk esana. Identifikatu gabeko mezurik ez da onartuko.**

**Mari Karmen Garciak** deitu digu aste honetan, txakurren jabeei kexu bat azaltzeko. Kalera irtetzen den bakoitzean, animalia hauen kakak zapaltzeko beldurrez ibiltzen da eta azkenean aurrera begiratu beharrean beti lurrera begira joan behar izaten da. Berak, behintzat, zapatak etxera garbi eramaten dituela, baina bere seme gaztetxoak beti sorpresatxoren bat ekartzen diola esaten digu.

Kontu honen inguruan sarri berba egin dutela eta, agintariei neurriak hartzeko eta animalien jabeei kontu gehiagoz ibiltzeko (txakurrak kalean kaka egiten badu, behintzat, kakak garbitzeko) eskatu nahi die.

ikuspuntua: **iñaki gabilondo**

## *Ametsen jabea*



Hor nonbait ezagutu nuen. Ametsak egunero izaten zituen halabeharrez eta beti, kutxa berean, kontuz-kontuz gordetzen zituen. Berak baino ez zituen amets horiek ezagutzen. Misterioz beteriko begirada zuen eta, aldi berean, xarma eta goxotasun izugarria azaltzen zuen beti. Amama Arisek eman zion deitura eta oraindik ere ez dut inoiz antzekorik aditu: Esdras.

Esdrasek goizero-goizero, zehaztasun izugarriz gogoratzen zuen gauez izandako ametsa. Egunean zehar gainean eramaten zuen ametsa, patrikan edo poltsan, baina gaua iristean egurrezko kutxan sartzen zuen. Era guztietako ametsak zituen kutxan: gaiztoak, alaiak, exotikoak, ulergaitzak...

Egun batez, udako beroarekin batera, kutxa hartu eta etxe azpiko pagadira abiatu zen Esdras. Pagadiaren kerizpean kutxa ireki eta ametsak ukitu egin zituen, dastatu egin zituen, ikusi, baita entzun ere. Izugarria zen. Guztiz berria zitzaion esperientzia hura. Hegan egin zuen pagaditik gora, lurrazpian ere ibili zen, sustraien tartetik usain bereziak dastatu zituen. Zoragarria zen txantxangorriarekin jolastea, gibelurdinean bizitzea; natural sentitu zuen bere burua.

Bitartean, beldurra gero eta handiagoa egiten zitzaion. Ikara bitxia zen benetan. Poliki-poliki logure hotz bat bere barnean sartu eta betiletatik tiraka begiak itxi zizkion ezinbestean. Egun batzuen buruan inguruko baserritar eta auzokideak Esdrasen bila goiz guztia ibili ondoren, etxe azpiko pagadiaren kerizpean, asaldaturik, beren pausua gelditu zuten, sobredosiak jotako Esdrasen gorpuaren aurrean. B

■ asteko menua: **iraho jatetxea**

# Buztana Iraho erara



MARIA LUISA LETURIONDO
*Iraho jatetxeko sukaldaria*

**OSAGAIAK (4 lagunentzat)**

- Buztan bat
- 4 azenario
- Ardo beltza (litro erdi)
- Basokada bat ur
- Koñaka (kopa erdi)
- 2 piper berde
- 4 kipula
- Olioa

**PRESTAKETA**

- Buztana zatitu eta lapiko batean sutan ipini; ondo gorritu arte eduki.
- Kipula, azenarioa eta piper berdea (guztia ondo txikituta) gehitu.
- Barazki guztiak bigundutakoan, ardoa, koñaka eta ura erantsi.
- Bukatzeko, su motelean irekiten eduki bi orduz.

■ adituen esanetan

# Ekzemak

ROMAN LAZPIUR, *albaitaria*

Uda sasoian animalien azalean sortzen diren infekzioak dira. Infekzio horien jatorria era askotakoa izan daiteke: arkakuso edo kaparren pikatadak, zauritxoren bat, substantzia narritagarriak (karea, lisiba...), txakur baten hozkada, sakulitisa (ipurdiaren bi aldeetan dauden bi guruin), parasitoak edota alergiak ere bai. Ekzemak txakur eta katuetan ematea nahiko ohizkoa da.

Ondorioz, animaliei hainbat tokitan azala gorritu eta umeldu egiten zaie eta, era berean, ilea galtzen dute. Hazkura izaten dute eta sarritan lesio horiek gaiztotu egiten dira, azalean pasmoa sortuz. Oso lesio mingarria da eta egunetik egunera handitzen joateko arriskua dago.

Tratamenduari dagokionez, pasmoa kentzeko garbiketa gogor bat egin behar zaio animaliari lehenbizi eta azalean pomada batzuk ematea ere gomendagarria da. Hainbat kasutan animaliak antibiotikoak ere hartu behar izaten ditu lesioa gainditzeko. Uda sasoian animaliek kalean denbora gehiago igarotzen dutenez, arrisku handiagoa dago ekzemak izateko. Esan beharrekoa da, bestalde, hainbat txakur arrazak (ehiza txakurrak, bull-dog ingelesak edota artzain aleman txakurrak) joera handiagoa daukatela ezkemak izateko. B

■ bergarako gordailutik

## OXIRONDO

**Imanol Sorondo**

Ezagutzen ditugun datuen arabera, badirudi Oxirondoko monasterioa erdi monje eta erdi gudari ziren tenplarioena zela. Monasterio izateak ez du esan nahi bertan bizi zirenik, harremanak eta primiziak jasotzen zituztela baizik. 1300.eko lehendabiziko urteetan erregeak desagerrarazi egin zituen, eta Gaztela herriko Fernando VI.a horrela jabetu zen ziur aski esandako eskubideez Oxirondon eta Uzarragan. Dena dela, 1305 urtean Fernando erregeak eta Gebaratar Beltran Ibañezek (gero bere ondorengoak Oñatiko konteak izango ziren) tratu bat egin zuten, eta horren arabera Beltran Oxirondo, Uzarraga, Zarautz, Azpeitia eta Arriaranez jabetzen zen, eta honek Araban, Zalduendon, Ozaetan eta beste hainbat tokitan zeukan lurraldeez erregea.

Oxirondo esaten zenean, Basalgo, Osintxu, San Juan auzoa eta abar hartu behar ziren, eta Elgetari lotua zegoen, nahiz eta ez hain ondo konpondu. Beste alde batetik iskanbila asko zegoen Euskal Herrian ganboatar eta oñaztarren artean. Oxirondori bergarar izatea eskaini zitzaion 1348. urtean eta babesa ematea; onartu egin zuen, nahiz eta herri bati dagozkion eskubide asko mantentzen jarraitu zuen. Herri bihurtu nahi izan zuen berriro 1631. urtean, Antzuolak egin zuen bezala, baina erregeak ez zion utzi.

Santamaina inguruan eta ibai aldera etxe gutxi zegoen; Kataibia (Katabixa) eta Oxirondo (Usondo) bakarrik; hemen, Usondon, Izagirretar Martin Fernandezek maiorazkoa sortu zuen 1529 urtean eta laster hasi zen Lauraga (Etxeaundi) egiten.

1538 urtean Santamaina ondoan zubia egitea pentsatu zuten; lehendik bazen Zubietakoa eta ia bukatuta zegoela uholde batek eraman zuen; geroxeago egin zen Aizpitarte du izena, hor egin baitzen. B



# Kirol argazkien sari-banaketa

**Udal Kirol Zerbitzua**k antolatutako **Kirol Argazkien Lehiaketa**ko sari banaketa egin zen aurreko eguenean Kultur Etxean. Lehiaketaren zortzigarren edizio honetan Euskal Herri osoko **25 argazkilari**k hartu dute parte, Bergarak lau ordezkari izan dituelarik. Aurrekoetan bezala, bi kategoria bereiztu dira aurten ere: zuri-beltzean **Javier Pedro Fernandez**ek eskuratu zuen garaipena (25.000 pezeta eta **Tere Guenetxea**ren trofeoa); bigarren saria (20.000 eta trofeoa), **Joaquin Garcia**k eraman zuen; hirugarrena, **Idoia Usabiaga**k (15.000 eta trofeoa) eta, herriko onena, **Benito Cantero** (10.000 eta trofeoa) izendatu zuen epaimahaiak. Koloretan, berriz, onenak **Juan Jose Camacho**, **Aitor Ajuria**, **Joaquin Garcia** eta **Hilario Azkargorta** bergararra izan genituen. Argazkian, saritutakoak (Javier Pedro Fernandezek ez zuen etortzerik izan) **Xabier Zabaleta** zinegotzia eta **Iñaki Ugarteburu** Kirol Zerbitzuko teknikariarekin batera.

# Ederrak limoiak!

Limoiak eta laranjak Mediterranio aldean hazten dira batez ere, baina argazkian ikusi daitekeenez, hemen ere ale ederrak hartzen dira. **Manolo Rodriguez**ek eta **Begoña Bengoa**k orain dela lau urte landatu zuten euren etxeko terrazan lagun batek Alakantetik ekarritako limoi landarea. Aurten **600**, **500** eta **400 gramo**tako hiru limoi eder eta beste 29 txiki hartu dituzte, "oso urtsuak eta zaporetsuak" Begoñak esan digunez. Arbolatxoa terrazan jarrita daukate, hegoaldera begira, eta ez diote produktu berezirik botatzen, noizbehinka bitaminak eta ura (automatikoki erregatzen dituzte), besterik ez.



# Eskultura berria Antzuolan

MARIJO DEOGRACIAS



Zapatu eguerdian Azkoitiko Galdabeitia enpresak egindako eskultura inauguratu zen **Antzuolako Zurrategi plaza**n. Eskultura brontzean egindakoa da eta, 1,75 m. altuera eta 150 Kg. inguruko pisua dauka. Inaugurazio ekitaldian, besteak beste, **Mikel Larrea** Antzuolako alkatea, zenbait zinegotzi, zurratzaile izandako hainbat antzuolar edota beraiekin harremana izan duten kanpoko zurratzaileak ere izan ziren. Langileei eskainitako eskultura hau **Luis Beitia**k eginikoa da. Bere lanetako bat Gasteizko Dato kalean brontzez egina dagoen toreroa da. Era berean, **"Larru langintza edo zurrategiak Antzuolan"** izenburuko erakusketa zabalik dago Antzuolako Udaletxean domekara arte.

# Bergarako OSASUN GIDA

■ **ALBAITARIAK:** **ARATZ KLINIKA (LAZPIUR Roman).** Zurradero 6, behea. 943 76 70 67, mobila: 907 48 71 19 • **ETXEBERRIA Julio (Granjako animaliak).** 943 76 43 29, mobila: 908 77 17 32 • **ETXEBERRIA Julio (Deba Garaiko albaitari ofiziala).** 943 76 43 29, mobila: 908 77 17 32 • **IRASTORZA BENGOA Sabin (Granjako animaliak).** Iribar baserria, ANTZUOLA. 943 76 63 46 • **NOGUEIRA Humberto (BALDANA klinika).** Koldo Eleizalde 28. 943 76 27 97, mobila: 908 87 68 4 ■ **ANALISI KLINIKOAK:** **LABORRA Isabel.** Oxirondo 4, 1-B. 943 76 32 06 ■ **BARNE MEDIKUNTZA:** **IRIGOYEN Victor.** Oxirondo 4, 1-B. 943 76 32 0 ■ **DENTISTAK:** **ASTIAZARAN SOLOZABAL.** Iparragirre 1, behea. 943 76 27 95 • **BERGARA HAGIN KLINIKA** Bidekurutzeta 6, 2. 943 76 05 77 • **GOROSABEL J. Alberto.** Fraiskozuri 5A, 1-D. 943 76 56 88 • **GIPUZKOAKO ESPEZIALITATE ODONTOLOGIKOETARAKO ZENTRUA, E. M.** S. Arrieta 3, 2-B. 943 76 38 54 • **IRIARTE Idoia.** Artekale 1, 1-C. 943 76 01 65 • **IRIZAR Juan Mari.** Boni Laskurain 4, behea. 943 76 56 57 ■ **DERMATOLOGOA:** **GARCIANDIA Cristina.** Ramon Maria Lili 2. 943 76 59 39 ■ **ERREHABILITAZIO FISIKOA:** **LOPEZ DE MUNAIN Francisco J.** Fraiskozuri 8, 1A. 943 76 71 74 ■ **FISIOTERAPEUTAK:** **ARZAK Mires** (Reeducacion Postural Global). Artekalea 1, 1-H. 943 76 43 71 ■ **GINEKOLOGOA:** **SERRANO DOKTOREA.** Ramon Maria Lili 2. 943 76 59 39 ■ **MASAILARIAK:** **AGIRREZABAL Jose Jabier.** Boni Laskurain 1, 2-A. 943 76 15 74 • **AZPEITIA Irune.** Agorrosingo igerilekuak. 943 76 20 51 • **CASANELLAS Jabier.** Boni Laskurain 5, 2-E. 943 76 03 78 • **ETXEBERRIA Ana.** Errekalde 6, behea. ANTZUOLA. 943 76 60 13 • **PAYROS Aitziber** Bidekurutzeta 46, behea. 943 76 52 62 ■ **MEDIKUNTZA ESTETIKOA:** **BENITO Isabel.** Bidekurutzeta 46, behea. 943 76 52 62 ■ **MEDIKUNTZA OROKORRA:** **OXIRONDO KONTSULTATEGIA.** Boni Laskurain 2, behea. 943 76 20 50 ■ **OTORRINOLARINGOLOGIA:** **IGARTUA Julian.** Barrenkalea 35, 1-ezkerra. 943 76 70 91 ■ **PODOLOGOAK:** **ALTUBE Edurne.** Simon Arrieta 2. 943 76 07 84 • **AZPIAZU Arantzazu.** Herri Lagunak z/g. 943 76 41 32 ■ **PSIKIATRA:** **GALLASTEGI Pablo.** San Martin Plaza 2, 1-ezkerra. 943 76 26 64 ■ **PSIKOLOGOAK:** **FERNANDEZ J.R.** Ramon Maria Lili 2. 943 76 59 39 • **PSIKOPEDA GOGIA ZENTRUA** (Logopedia-foniatria, psikologia, psikomotrizitatea). 943 76 14 80 • **URKAREGI Pakita** (Psikologo klinikoa). 943 76 53 13 • **ZUBILLAGA ZABALA Marisa** (Psikologo klinikoa). 943 7630 76

20 zenbakia. Berezia. 1998ko uztailaren 10a.

# kontuola...



# ANTZUOLAKO JAIXAK 98

# Zer egingo duzu jaietan? Eta zer da gehien atsegin duzuna?



**Ainize Lizarralde**

Eztakitt zer egingo doten baiña Antzuolan ibilliko naiz. Kabezuduak billurra emoten doste, baiña barrakak asko gustatzen jat; gutxi gutxi egoten dia, baiña...



**Itsaso Zabalo**

Jolastu, ondo pasatu eta kalian ibilliko naiz. Gaiñera kabezudotan ibiltzia asko gustatzen jat eta lagun danak jaixetako kasakia ipiñitta ertetzia be bai.



**Nico Nuñez**

Jaietan ahal dudan ondoen pasatuko dut. Ekartzen duten musika banda da gustukoen dudana. Alardea ere atsegin dut, nahiz eta askotan ikusi dugun.



**Laureano Manzisidor**

Gabaz berandu jun eta goizian, lo. Gehixen gustatzen jatena gazte jendia, neu nola zaharra naizen, gazte jendia gehixago gustatzen jat, dibertitzeko eta ondo pasatzeko.



**Ascensio Azkarate**

Ahal danik eta onduen pasatu, neuretako daren jairik onenak die eta. Gehixen gustatzen jatena anbientia eta andriakin dantza egittia, gaiñera nola andria daukaten dantzarixa...



**Rosarito Yarza**

Kalera urten, bueltа batzuk eman eta ahal baldin badogu, gaupasa. Gehixen gustatzen jatena rantxerak eta dantza egittia. Mariatxiekin sekulako dantzak egingo dittugu!



**Itziar Manzisidor**

Herrixan ibilli, afari on bat egin eta kuadrilliakin dantza egin. Gehixen gustatzen jatena berbenia izeten da, baiña uste dot soiñua aldatu egin dala eta anbientia gaztiendako dala.




**KONTUOLA**

*Antzuolako hamabostekaria.*
*20 zenbakia. Berezia.*
*1998ko uztailaren 10a.*

**Idolaz elkartea, Antzuola**
**Kazetaria**:
Marijo Deogracias
**Maketatzailea**:
Iñaki Iturbe
**Erredakzio kontseilua**:
Miren Anduaga
Gotzon Iparragirre
Patxi Kortabarria
Jone Larrañaga
**Testuen zuzenketak**:
Maripi Laskurain
Lierni Legorburu
**Telefonoa eta faxa:**
76 65 08, Herri ikastetxea.





GAILUR
taberna eta gozotegia

Buztinzuri 13 ANTZUOLA
Tf. 943 78 70 32

KALEGOI 19 ☎ 943 76 64 07

Tomas Gezalaga

ANTZUOLA BERGARA

• Zoruen kutxilatu eta barnizaketa •

ANTZUOLA

Apainketak eta isolamenduak
•
Pladurrezko dibisioak

Kalegoi 21 ANTZUOLA
Tf.: 943 72 30 05
Biltegia: 943 78 70 40



Zabalo Iturgintza S.L.

Bidea eginez

**Tailerra**: Uzarraga bidea 10. Tf. 943 78 71 78
**Erakusketa:** Kalebarren 1. Tf. 943 78 71 79, Tf. eta F. 943 76 64 73

- Gasa
- Berogailuak
- Haize egokitua
- Enpresen mantenimendua
- Lurrun instalazioak
- Bero-aurreztea
- Bainugelak. Proiektuak momentuan egiten ditugu DIBAren bidez
- Birgaitze-espedienteak bideratzen ditugu

# Txirrindulari lasterketa domekan, jaien atari

**Domekan jokatuko da LIII. Antzuola Saria «Iñaki Lete VI. Oroigarria» txirrindulari proba. 23 urte azpiko 200 bat txirrindulari arituko dira jaiak hasi aurreko asteburuan. Tartean Deskarga, Udana eta Asentzio gainak igo beharko dituzte. Jaietarako motorrak berotzeko balioko duen lasterketa honek urte asko ditu eta bere historia ezagutzeko urtetan txirrindularitzan ibili den eta dabilen Santi Aiastuirekin berbetan jardun dugu.**

**Noiz utzi zenuen txirrindularitza?**

1973 eta 74an profesionaletan ibili nitzan (Kas) Lasa, Perurena eta beste askorekin eta gero laga egin neban. Asko sakrifikatu bihar da eta oin gaiñera futbolak gehixago tiratzen jao jendiari. Gaiñera pasatzen da kirol danetan moduan, mailla txikittan jendia eztala juten animatzera. Profesionaletan bai, baiña jendia ezta kontura tzen hortara aillegatzeko lehenengo beste mailla txiki horretatik pasatu bihar izeten dala eta horrek die azkenian inportantienak.

**Zeu bakarrik hasi zinen bizikletan garai hartan?**

Nere parian hasi... Kaxeta (Juan Jose) eta bixok hasi giñan eta gerotxuago Lekuberriko Jose Antonio, Kaxeta beste anaia eta askoz beranduago, Baleztena, Gonzalez... beti egon da baten bat. Ointxe dago krisi pixkat!

**Lortutako zein sari azpimarratuko zenuke?**

Bi bider irabazi neban Gipuzkoako txapelketa eta beste bi bider Espainiako azpitxapeldun geratu nitzan eta irabazittakuak... Cinturón de Barcelona bueltia irabazi neban, 1972xan.

**Asko aldatu al da txirrinduritza?**

Bai, batez be medikuntza eta janari aldetik. Oin dana programatuta dago. Gu pixkat ibiltzen giñan gure modura. Orduan gaiñera etzeguan ekipo askorik (Kas eta Monte Verde) eta kosta egitten zan mantenitzia hor goixan. Oindio be, oso nekeza da eta bizikletiak dedikaziño haundixa eskatzen dau. Bestela, teknika aldetik... bizikletak asko aldatu die baiña orduan eta oin, danak igualakin ibiltzen die.

**Noiz hasi zen Antzuolako karrera hau antolatzen?**

Lehen Club Deportivo Bergarak antolatzen zeban. Neri peñia egin zostenian, 1969xan, Peña Aiastui hasi zan antolatzen. Lehen-lehen, profesionalak eta afizionatuak batera korritzen zeben.

**Antzuolako txirrindularirik ez egoteak ez al du penarik ematen?**

Bai, pena pixka bat, baiña ezin ba herrikua dagonian bai eta eztagonian ez! Baiña pena gehixago emoten dau organizaziñuan ez egotia jenderik. Aspaldian Joseba eta bixok ibiltzen gara eta nahiz eta karrera egunian kruziak eta egitteko jendia topatu, karrera aurretik gauza asko egin bihar izeten die eta geu egixa esan pixkat erreta be bagare.

**Zer gogoratzen duzu jaietako lasterketez?**

1965ian tokau zan parian Donostian mundialak ziela eta Antzuolan korridu zeben italiarrak, belgak, frantsesak... Afizionaturik onenak korridu zeben eta italiar batek irabazi zeban. Aurten japonesak pe korriduko dabe.



*Santi, 23 urte antolaketan.*

## PROFESIONALAK ANTZUOLAN

Ondoko taulan profesionalak izanda lasterketa irabazi edo lasterketa irabazi eta profesionalerata iritsi diren txirrindulariak jaso ditugu.

| | |
|---|---|
| **1953** | Cosme Barrutia |
| **1954** | Oscar Elgezabal |
| **1955** | Tomas Oñaederra |
| **1956** | Anton Barrutia |
| **1957** | Francisco Moreno |
| **1958** | Pontziano Arbelaiz |
| **1959** | Clemente Galdeano |
| **1965** | Aldo Balasso (italiarra) |
| **1982** | Alberto Leanizbarrutia |
| **1984** | F. Javier Rekalde |
| **1985** | Javier Mauleon |
| **1986** | Xabier Aldanondo |
| **1991** | Javier Palacin |
| **1993** | David Etxebarria |
| **1994** | Ricardo Otxoa |
| **1995** | Unai Osa |
| **1997** | Alberto Martinez |





DESKARGA
AUTOAK
Antigua auzoa z/g Antzuola.
Tf. 943 76 62 75



Juan Cruz



Ezkontza erreportaiak
Jaunartze erreportaiak
Argazkiak

Bitxitegia
Marrokineria
Erlojuak

Herriko plaza 4, ANTZUOLA
Tf. 943 78 70 66

LEKU-BERRI MERENDEROA
Janariak eta edariak
Tf. 943 76 60 94

## Eguena 15

**10:30**
**Umeendako jolasak** plazan, udaleku irekietako begiraleekin.
**Marrazkigintza eta erakusketa**.

**13:30**
**Umeen herri bazkaria** elizpean.

**16:00**
**Egin dakizuna**:
aurrez prestatutako ikuskizunak umeek eginak.

**17:30**
**Txupinazoa eta buruhandiak** plazan.

**18:30**
**Kanpaiak eta txistularien kalejira**.

**19:30**
**Meza**.

**20:15**
**Dinarin** taldearen saioa: umeen ikurrin dantza; udalbatzaren aurreskua; Antzuolako bandera eta **ikurriña jasotzea** herriko plazan.

**22:30**
**Triki Ta Ke** taldearekin dantzaldia herriko plazan.

**24:00**
**Suzko zezena**, plazan.

**24:30**
**Triki Ta Ke** tadearekin dantzaldia.

# Umeak protagonista jaietako lehen egunean

**Neska-mutikoen eguna izango da eguena. Eurak izango dira protagonista egun osoan zehar. Eguenean udaleku irekien azken eguna dela eta, herri bazkaria egingo dute urtero legez. Bazkaria elizpean egingo dute, baina horrez gain, jolasak, karaokea eta dibertsioa izango da nagusi haurren egunean.**

Goizean goiz hasiko dira herriko neska-mutikoak kalean gora eta behera. Uztailaren batetik hasita udaleku irekietan aritu ondoren, jaietako lehenengo egunean amaituko dute aurtengo txanda hamar begiraleek.

Haurrak izanik protagonistak, jolasak izango dira nagusi goiz osoan zehar. Horrez gain, aurreko urteko udalekuetan ateratako argazkiak ikusteko aukera izango dute 13:00etan. Eta goiz guztia hor zehar ibili ondoren gosea asetzeko aukera izango dute. Iaz izan zuen arrakasta ikusita aurten ere, leku berean, elizpean, elkartuko dira 5 urtetik DBHko lehen mailara arteko neska-mutikoak. Herri bazkaria 13:30etan izango da.

### Arratsalde luzea

Orain dela hamaika urte hasi ziren udaleku irekiak egiten herrian. Aurten begiraleen koordinatzailea den Jon Tenak adierazi digunez "gu zazpigarren mailan ari ginela hasi zirela gogoratzen dut. Hamar begirale eta ni aritu gara neska-mutikoekin eta beste gauza batzuen artean Mirandaolara irteera antolatu dugu, noski, ez dira falta izan urteroko San Ferminak uztailaren 7an eta betiko sukaldari lanak. Eguenean "Egin Dakizuna" deitu duguna egingo dugu. Saio honetan haurrek ongien egiten dakitena erakusteko aukera izango dute: dantza, abestu, malabarrak... denak izango du tokia haurren herri bazkariaren ostean".



*Herri bazkaria elizpean egingo dute neska-mutikoek.* JUAN CRUZ ARGAZKIAK

MUJIKA HARATEGIA
**Berezitasunak:**
*Baserriko oilaskoak*
*Baserriko zekorrak*
Kalebarren 1, **ANTZUOLA**
Tf. 943 76 64 34

OKINDEGIA
GOXOTEGIA
DAZTAKETA
KROISSANTEGIA
ONDO PASAU JAI HAUETAN!
ALTZARTE
Kalebarren 18. 943 76 62 94

Jai zoriontsuak izan!
Itzar
LIBURUDENDA
ESTANKOA
Kalebarren 1, ANTZUOLA
Tf. 943 76 60 62

# Zinegotzien eta alkatearen aurreskua iluntzean

Meza ostean jende ugari elkartzen da urtero jaien lehenengo egunean Herriko plazan. Antzuolar gehientsuenek jaietako unerik politena, edo behintzat atseginena, dela esaten dute. Gure udal ordezkariek duten dantzari trebezia erakusteko unea izaten da. Eta horretxen zain elkartuko dira datorren ostegunean ere, 20:15etatik aurrera antzuolarrak Herriko plazan. Udal ordezkarien dantza saioa ohiturei eusteko balio digun jai ekitaldia da. Aurreskua euskaldunentzat esanahi berezia duen dantza izaten da. Zeremoniaz beteriko dantza honek, hala ere, badu bere alderdi barregarria ere. Egun batez, eta inongo konplejurik gabe, udal ordezkariak Herriko plazara aterako dira mahoizko prakak, alkandora zuria, abarkak eta txapelarekin, Antzuolako herriari aurreskua eskaintzera.



*20:15etan izango da aurreskua.* JUAN CRUZ ARGAZKIAK

ARGAZKI ZAHARRA



## *Jaiak, ligatzeko aukera ederra*

*Antzuolakoak betidanik izan dira giro handiko jaiak. Egun horietan kanpotik jende asko etortzen da eta garai bateko jaietan ere berdin izaten zen. Argazkia orain dela 40 bat urte ateratakoa da. Gazte koadrilak tabernaz taberna aritzen ziren gaur egun bezala. Lagun talde honek Larrea tabernako terraza hautatu zuen kanpotik etorri ziren neska hauekin ligatzeko edo! Neskak abuztuan etorri ziren, orduan ospatzen baitziren jaiak.*

GALDEZKA

## Mamen Jauregi

Jai batzordeko kidea



**Zein helbururekin aritu zara jai batzordean?**
Parte hartzeko helburuarekin, norbaitek egin behar duela eta neu joan nintzen.

**Lan handia ematen al du jaiak antolatzeak?**
Ez, bakoitzak bere gertukoen arloa hartzen du eta banaketa egin ondoren ez da horrenbeste lan izaten. Pare bat egunetan lan egiten da baina ondo eramaten da, egunero ez gaude jende berdina eta.

**Jendeak parte hartzen du honelako gauzetan?**
Bai, baina batzuek adibidez ados egoten baino ez dakite.
Hala ere, jendeak hartzen du parte eta inoiz ez da laguntza beharrik somatzen, zerbait planteiatzen denean jendeak lan egiten du. Baina jende berria animatu beharko litzateke.

**Herriko jaiei zerbait falta zaie?**
Interesa: Jendeak ez du parte hartzen. Orokorrean uste dut interes falta dela jaiei falta zaiena. Egokiena egiten diren gauzekiko interesa izatea eta nolabait, identifikatuak sentitzea, baina hori ez da gertatzen eta hori nola aldatu? Horixe ba, arazoa!

**Zenbat aldiz izan zara jai batzordean?**
Hiru edo lau aldiz izan naiz.

**Zein ekitaldi duzu gustukoen?**
Nik? Beharbada mariatxiak.

HARIZKI
MUEBLES IGEA
Sukalderako eta bainurako altzariak
Altzari rustikoetan espezializatuak
Zorionak antzuolarrok!
Zurrategi plaza 4, behea ANTZUOLA Tf. eta faxa 943 78 71 80

KALEGOI 19 ☎ 943 76 64 07
Tomas Gezalaga
ANTZUOLA BERGARA
• Apainketarako eta industriarako pinturak •
• Paper margotuak •
• Moketak eta tapizatuak •

EGITARAUA

## Eguakitza 17

**10:00**
Txistulari taldearekin **goizeresia**.

**10:55**
**Txaplero zaratatsua**ren jaurtiketa.

**11:00-14:00**
**Umeendako jolas parkea**:
motor pista, gaztelu ertaina, errokodromo puzgairra, bi ohe elastiko eta puzgarri handi berezia, herriko plazan.

**11:30**
**Meza nagusia**.

**12:30**
**Irinmodoren aurkezpena**
udaletxeko areto nagusian.

**16:00-19:00**
**Umeendako jolas parkea**
herriko plazan.

**19:00**
**Elkartasun festa** herriko plazan.
Batzen den dirua Brasilen dagoen Juan Antoniori bidaliko zaio hango proiektua bultzatzeko.

**22:00**
**Antzuolako hiria pilota finalak**
pilotalekuan.

**23:00**
**Zabaleta Band-en erromeria**
plazan eta rock kontzertua, txoznetan.

# Pello eta Jokinek jaiak lanean igaroko dituzte

**Jaiak aitzakia ona dira parrandan ibiltzeko. Baina badira jaiak lanean pasako dituztenak ere. Hau da Pello Iturbe eta Jokin Rodriguezen kasua.**

1. Nola pasatuko dituzu jaiak?
2. Lanik egin beharko ez bazenu, zer egingo zenuke?
3. Zuen lanean jendea ondo pasatzen ikusten duzue; inbidiarik sentitzen duzue?
4. Noiz ibiltzen da jende gehien?
5. Jaiak gustatzen zaizkizue, edo zerbait falta zaiela uste duzue?
6. Zer botatzen duzue faltan gaur eguneko jaietan?

**PELLO ITURBE**

**1.** Lau egunak lanean pasatuko ditut, ez dut egun bakar bat ere libratuko.
**2.** Jai izango banu jai giroan ibiliko nintzateke kalean. Jaiak biziko nituzte. Ez nintzateke kanpora joango, horretarako oporrak izaten dira eta.
**3.** Inbidia! Bai, pixka bat, baina horretarako onena norbera ere girotzea izaten da, eta aurrera!



**4.** Gero eta jende gutxiago. Gainera, hemen, bestela baino jende gutxiago ibiltzen da. Ez da txarangarik etortzen, ezta mairua bera ere! Etortzen diren bakarrak txistulariak dira.
**5.** Bai, baina geroz eta jende gutxiago dela uste dut. Kaleko giroa falta da, antolatzaileek ez dituzte jaiak bizi eta.
**6.** Incansableak, entzierroak eta bigantxak. Baina gazteen ohiturak asko aldatu dira. Lehen egun osoa pasatzen genuen kalean, orain, berriz, egunez lo eta gauez ateratzen dira.

**JOKIN RODRIGEZ**



**1.** Lau egunak lanean.
**2.** Ezer berezirik ez, jaietan ibili eta ondo pasatzen saiatu.
**3.** Ez, nik jaiak beste batek bezala pasatzen ditudalako. Gainera, barran ondo pasatzen da.
**4.** Zapatuan.
**5.** Bai, giro ona egoten da. Agian, egunez zeozer bai; nire ustez jaiak gauez egiten dira eta egunez ez da ezer egoten.
**6.** Kaleko giroa.

HIRU AROZTEGIA
ATEAK • LEHIOAK • ZORUAK • HORMA ARMAIRUAK
Ondo pasau jaixak!
Antigua auzoa z/g 20577 ANTZUOLA Tf.: 943 76 63 59

# Antzuola eta Brasil batuta Juan Antoniori esker

Juan Antonio Lizarraldek 25 urte daramatza Brasilen. Canudos herriaren azpiegitura arazoak konpontzeko lan egiten du hiru mojarekin. Berak dioenez "garrantzitsuena bertako jendeak lan egiteko duen gogoa da".

Brasileko ingururik lehor honetan ur eskasia dute. Juan Antoniok eta bere lan taldeak jadanik 70 ur depositu egitea lortu dute eta orain beste 10 egitekotan dira. Hala ere, ez da jasan beharreko arazo bakarra. Lurren jabetzak buruhauste bat baino gehiago eragiten die ia egunero. Latifundistak lursailen jabe bihurtzeko irrikitan egoten direnez, Juan Antoniok eta Canudoseko komunitateak mehatxu horrekin bizi behar izaten dute egunero. Hala ere, Juan Antoniok esan digunez, "gauzak aldatzen joan dira. Orain dela 18 urte egoera larriagoa zen. Ia egunero armadaren mehatxuak jasaten genituen eta tirabirak saihestea ez zen horren erraza izaten. Dena den, jendearen nahiak eta indarrak asko laguntzen dute, eta hori ikusi ondoren oso gustura nago han".

**Elkartasun jaia**

Ez dute dirulaguntza askorik izaten Canudoseko proiektuan. Horregatik eskerrak ematen dizkio Antzuolari "eskainitako laguntzari esker eraiki ditugu eta ur depositoak. Elkartasunerako borondatea duen herria da eta horrek asko laguntzen dit lanean jarraitzen". Eguakitzean egingo da elkartasun jaia eta batzen den dirua Canudosera bidaliko da.

GALDEZKA

## Juan Antonio Lizarralde

Misiolaria



**Zenbatero etortzen zara Antzuolara?**
Hiru urtetik hiru urtera, baina oraintxe ere bi urte baino ez dira pasatu azkenenago alditik.
**Zer egiten duzu etortzen zarenean?**
Hango lana alde batera laga eta lasaitzeko aprobetxatzen dut. Bestela, lagunekin egoteko aprobetxatzen dut. Hainbeste urtetan kanpoan egonda zuztarra ez dut galdu herriarekin.
**Pentsatu al duzu inoiz ez itzultzea?**
Ni gustura nago han. Hemen ere bai, baina lanerako nahiago dut han egotea.
**Zer nabarmenduko zenuke Brasileko herriari buruz?**
Jendearen egoera. Nire hautaketa izan zen behartsuen alde lan egitea eta horixe egiten ari naiz.
**Han zaudenean zer botatzen duzu faltan?**
Herrimina izaten dut, baina ez naiz estutzen; horrela balitz, orain ere hemen gelditzeko aukera daukat!
**Nola aurkitu duzu Antzuola?**
Orain dela lau urte baino egoera ekonomiko hobean dagoela esango nuke.
**Han portugesez eta hemen, euskaraz?**
Etortzen naizenean ahalegintzen naiz euskaraz egiten; nire izatearen zati bat da, eta hemen berrizten saiatzen naiz.

ARGAZKI ZAHARRA



## *Ijitoak Antzuolan*

*Herriko jaietan ihauterietan baino jende gehiago disfrazatzen zen garai batean. Orain dela 20 urte ijitoak izan ziren nagusi herriko jaietan. Batzuek ijito aberats jaztea erabaki zuten; beste hauek, ordea, xume-xume jantzi ziren. Halere, behartsuak balira bezala jantzi arren, jatekorik eta edatekorik ez zuten faltan. Oilaskoak, ardoa, ogia… eta umorea. Hori nagusi!*

**Ondo pasau danok jaixetan!**



Gabilondo-Arregi
harategia
ABELGORRI-OKELAREN EUSKO LABELA
Kalebarren 14 ANTZUOLA Tf. 943 76 62 90

TXOMIN
garajea
Mekanika orokorra
Lizarragako hiribidea 8 ANTZUOLA
Tf. 943 78 70 77

## Zapatua 18

**10:00**

Txistulari taldearekin **goizeresia**.

**10:55**

**Txaplero zaratatsua**ren jaurtiketa.

**12:00**

**Detraka** taldearekin **umeentzako tailerrak** herriko plazan: artisau txapak, paperezko kometa handiak, makillaia, txontxongiloak, sapaian zintzilikatzeko mobilak eta postal mugikorrak.

**12:30**

**Mairuaren alardearen bideoaren aurkezpena** udaletxeko areto nagusian.

**18:00**

**Mairuaren alardea**, plazan.

**19:00**

**Oinarin taldearen dantza saioa**, plazan.

**23:00**

**Los Perez de Nochistlan** mariatxi taldea herriko plazan.

# Zapatuan izango da mairuaren alardea

Duruan truke joaten omen ziren garai batean eskopetariak mairuaren alardean. Baina ez ziren ez hala holakoak. Orduan, soldaduzka eginda izan behar zen alardean soldadu irtetzeko. Jose Luis Errastik kontatu digunez "orduan alardea beste gauza bat izaten zen. Umetan danborrero izaten ginen eta behin soldaduzka eginda, eskopetari irtetzeko aukera izaten genuen".

Jose Luisek, beste antzuolar askok bezala, urte asko egin ditu mairuaren alardean parte hartzen. "Hamasei urte nituela edo hasi nintzen. Lehenengo kainoiak eramaten eta gero soldadu. Azkenengo urteetan, berriz, banderadun izan nintzen".

### Alardearen aldaketak

Frankoren garaian Juanito Tejeroren lana izaten zen diskurtsoa eta bandera, berriz, Uzarragako Gregoriok eramaten zuen. Eurak izaten omen ziren urtero urtero, inongo dudarik gabe, kapitaina eta banderaduna. Orain dela hogei urte ezpata eramaleak agertu ziren eta kapitaina eta banderaduna aldatu ziren. Gerora, danborreroen txanda izan zen. Jose Luisek azaldu digunez "neskak danborra jotzen irtetzea lortu genuen. Garai batean pentsaezina zen neskak alardean parte hartzea. Hala ere, ez daukagu eskopetari emakumezkorik eta inoiz norbaitek eskopetari izan nahi duela esango balu, zerbait asmatu behar...".

### Mairuaren jantzi berria

Garai batean sekulako arrakasta izaten zuen mairuak Antzuolan. Jose Luisek gogoratzen duenez "autobusak egoten ziren 14:30etatik aurrera Bergaratik Antzuolara mairua ikusteko". Aurten, agian, bere protagonismoa errekuperatuko du "Antzuolako moruak"eta berriz ere famatua egingo da, traje berriarekin!



*Aurten ere sutu egingo dute soldaduek.* JUAN CRUZ ARGAZKIAK

Jai zoriontsuak herritar guztioi!
ANTZUOLAKO BASERRIETAKO
HARAGI
NATURAL ETA ONENAK
Juan Jose AGIRRE
Kalebarren 1, ANTZUOLA Tf.: 943 76 64 84



AITZ-GARBI
taberna-jatetxea
Pintxoak eta kazuelatxoak. Bazkariak eta afariak
Tf. 943 78 70 51

# Arriba, arriba, Mexiko lindo!

Zapatuan mariatxien txanda izango da. Los Perez de Nochistlan-ek animatuko dute gaua. Mariatxi taldeak hilabete darama Euskal Herrian eta dagoeneko inguruko herrietako jai guztietan izan dira. Datorren zapatuan Antzuolari tokatuko zaio euren mariatxi doinuak entzutea. Tronpetek eta mexikarren kapelek zapatuko gaua alaituko dute. Gainera, eta inguruko herrietako jaietan bezalako giroa sortzea lortzen badute, sekulako arrakasta izango dute inongo dudarik gabe. Arriba arriba, Mexiko Lindo!



*Kalejiran ibiliko dira mariatxiak.*

ARGAZKI ZAHARRA



## *A ze neska ederrak!*

*Holako dotore jantzi zen Antzuolako neska koadrila hau 1966ko jaietan. Piedade bezperan, abuztuaren 24an, egin zen moda desfilerako, herriko elkarteek hautatu zituzten neska puska hauek. Ezkerretik eskumara, Enkarnita Azkarate, Rosarito Igartza, Mari Karmen Irizar, Mari Tere Uranga, Isabel Zabalo, Milagros Larrea, Florencia Fernandez, Marisol Iturbe, Maria Aranzazu Arbulu eta Mari Angeles Igartza dira. Epai mahaikoek neskarik dotoreena Isabel Zabalo hautatu zuten eta ohorezko damak Mari Tere Uranga eta Mila Larrea.*

GALDEZKA

## Visi Rodriguez

Jaietako kartel lehiaketako irabazlea



**Zertan oinarritu zara kartela egiteko?**
Mairuaren alardean. Kainoiaren tiraketak jaiei hasiera emango balie bezala. Hasieran alardeko tanborrero eta eskopeteroen jantzien flekoen koloreak bakarrik erabiltzea pentsatu nuen, baina zerbait alaia nahi zutela eta kolore gehiago sartu dizkiot.

**Zergatik mairuaren alardea?**
Hori delako jaien ohikoena. Kanpoko jendeak ere alardeagatik ezagutzen ditu herriko jaiak.

**Asko kostatzen da buruan duzun ideia hori paperean garatzea?**
Beno hortan datza gure lana. Diseinu grafikoa ikasi dudanez ahalmena izan behar da ideiak erakusteko.

**Lehiaketa irabazterik espero zenuen?**
Ez eta bai. Behin aurkeztu eta gero aukera berdinak dituzu... baina, ez, ez nuen espero.

**Ilusioa egiten dizu zure lana jendaurrean izateak?**
Beno, bai... zure lana errekonozitzea gustukoa da, batik bat horretan saiatu bazara.

**Akuarelan egin duzu kartela, zergatik?**
Tamaina txikian egitea pentsatu nuelako hautatu nuen akuarela. Margoa formato handiagoetan erabiltzea nahiago dut.

GOROSTi
Taberna
Jaixetan... Ondo pasau!
☎ 943 76 62 96
Zurrategi plaza ANTZUOLA

Garbiñe
Ileapaindegia
Estetika
Solariuma
GERTA ZAITEZ JAIETARAKO!

Ondarre plaza 4, ANTZUOLA Tf. 943 76 61 56

## Domeka 14

**11:00**
**Debako Bandaren kalejira**.

**12:30**
**Debako musika bandaren kontzertua**, Zurrategin.

**13:00**
**Kantauri txarangaren kalejira**, Errekaldetik hasita.

**14:30**
**Herri bazkaria**, herriko plazan.

**18:00**
**Kotxe telegidatuen erakusketa eta lehiaketa**, herriko plazan.

**19:00**
**Hortzmuga** taldearekin kale animazioa.

**20:00**
**Kantauri txarangarekin kalejira**.

**22:15-23:30**
**Alaitz eta Maider** taldearekin dantzaldia.

**22:30**
**Suzko erroberak**, Pirotecnia Zaragozanaren bilduma. Estala futbol zelaitik botako dira. Ondoren, **Alaitz eta Maider** taldearekin dantzaldia, herriko plazan.

**02:30**
**Kantauri txarangarekin jaien amaiera**.

# Herri bazkaria jaien bukaeran elizpean

**Parrandan hiru egunez aritu eta gero, etxera barik kalean bazkaltzeko aukera izango da jaietako azkenengo egunean. Aurten ere, Gestorek antolatutako herri bazkaria egingo da domekan. Elizpean jarriko dituzte mahai luzeak eta hantxe zerbituko dituzte lehenengo eta bigarren platerak. Txartelak erosi ez dituztenak oraindik denboraz daude!**

Pollerua, Patxi, Eltzikorta eta Karmen gogoratuz antolatu dute aurten Gestorek herri bazkaria. Azkenengo urteetan izandako arrakastak animaturik, aurten ere elizpean ipiniko dituzte mahai luzeak. Orain arte, urtero bazkalosterako sorpresatxo bat izan dute antolatzaileek. Iaz Polleruaren telefono deia izan zen. Aurten ere zerbait antolatzekotan dihardute, hala ere, momentuz ez digute zer izango den konfirmatu. Hori dela eta, emozioa itzali ez dadin, sorpresa modura utziko dugu bazkalostea.

**Txartelak salgai**

Iaz bazkari egunera arte egon ziren txartelak salgai eta aurten ere gauza bera egitea pentsatu dute antolatzaileek. Hala ere, bi preziotako txartelak egongo dira. Eguenera bitartean, uztailak 16, txartelak erosten dituenak 1.000 PTA ordaindu beharko ditu. Hortik aurrera, berriz, eta igandera bitartean, 500 PTA garestiagoak izango dira. Txartelak, Gailur, Surpe, Arin, Gorosti eta Larrea tabernatan eta Gaztetxean daude salgai. Beraz, jaien azkenengo egunean kalean eta lagun artean bazkaldu nahi duenak aukera ederra dauka. Gero ez esan ez zekizuenik!



*Iaz giro ederra egon zen herri bazkarian.* JUAN CRUZ ARGAZKIA

**igor eta Txomin**
*Pintura orokorrean.*
*Paper, tela, binilo, kortxozko... estaldurak.*
*Gotelesa, iztukuak eta bestelako imitazioak.*
ANTZUOLA ☎ 943 76 60 39
BERGARA ☎ 943 76 19 98

**EGAÑA**
Era guztietako arotz lanak
Tarima eta parketa jartzea
Zoruen kutxilatu eta barnizatuak
Kalegoi 21, ANTZUOLA Tf.: 943 76 64 23

**Ainhoa**
**drogeria**
ONDO PASAU JAIXETAN!
Kalebarren 13, ANTZUOLA

# Alaitz eta Maider eta Kantauri txaranga

**Jaietako azken egunean dantza egiteko aukera paregabea izango dugu. Iluntzean Alaitz eta Maider trikitilariak izango dira plazan eta goizaldean Kantauri txarangak amaituko ditu jaiak.**

Orain dela 20 bat urtetik hona, Incansableak izan dira Antzuolako jaiei amaiera eman dien txaranga. Aurten, ordea, polemika sor dezakeen txaranga arituko da 02:30etatik aurrera jaietako azken dantza doinuen arduradun. Kantauri txaranga donostiarrak Errekalden hasiko du kalejira eta goitik behera etorriko dira jaien amaiera iragartzen. Kantauri txaranga Anoetan aritzen den txaranga da; hau da, Reala animatzen ibiltzen dena. Hori dela eta, batek baino gehiagok datorren urtean San Mameseko lehoia ekarriko dutela esan dute, deiadar handiago batekin amaitzeko jaiak. Dena den, eta txisteak alde batera utzita, eurak izango dira jaietako azken ekitaldia eta eurekin batera etxera jo beharko dugu, hurrengo urtera arte.

**Alaiz eta Maider**

Kantauri txarangaren aurretik "txanpon baten truke" dantza egiteko aukera izango dugu. Alaitz eta Maider izango dira azkenengo egunean. Ez dakigu txanpon bat edo biren truke joko duten baina bi trikitilariak giro ederra ipiniko dutela seguru; bestela gogoratu iazko jaietan zein izan zen gehien entzun zen kanta. Alaitz eta Maiderren saioa 22:00etan hasiko da.

## Andoni Larrañaga

Idolazen pegatina lehiaketaren irabazlea



**Nolatan pegatina hori?**
Denbora guztian Internetarekin nabil eta horrekin ere zeozer egin daitekeela eta, direkzio luze bat asmatu eta...

**Idolazek erabiltzeko helbidea dela uste duzu?**
Euskararendako modukoa, mundu guztian zabaltzekoa edo behintzat Euskal Herrian zabaltzekoa. Mezu hau irakurri daiteke pegatinan: "Euskeraz@gure artian/beti/nunahi.com".

**Jendeak ulertuko du?**
Gazteek bai baina, besteek ikusi egin behar.

**Uste duzu honelako ekimenek euskara indartzeko balio dutela?**
Bai, baina gauza gutxi egiten dela uste dut; umeen mailan gauza gehiago egin liteke, ez?

**Jaietan pegatinak banatuko dituzu?**
Tako bat ematen baldin badidate, bai... Internetaren bidez ezingo dugunez egin, ahoz aho zabalduko dugu euskara.

**Diseinu grafikoa ikasita erraza al da lana aurkitzea?**
Zaila da... Lana badaukat baina sartzea zaila da.

**Zelako lanak gustatzen zaizkizu?**
Lan politenak izaten dira libertatea lagatzen dizutenak. Oraingo lanak enpresendako dira eta bakoitzak bere ezaugarriak dituenez, horrek kreatibitatea mugatzen dizu.

ARGAZKI ZAHARRA



## *Dantza sueltuan frontoian*

*Jaietako azken egunean dantza sueltoko txapelketa egiten zen herriko jaiak abuztuan zirenean. Kanpotik ere jende dexente etortzen zen txapelketan parte hartzera. Inazio eta Milagros aritu ziren orain dela hogeita hamar bat urte txapelketan eta irabaztea lortu ez zuten arren, behintzat, itxura bazutela erakutsi zuten. Diotenez, trikitilariak bergararrak omen ziren!*

SURPE taberna
TRAGO BAT hartzeko tokirik APROPOSENA
Herriko plaza 2, ANTZUOLA
943 76 64 97

• PINTXOAK
• BOKATAK
• KAZUELITAK
Kalebarren 17, ANTZUOLA
943 78 70 68
LARREA TABERNA

Jaixetan ere Pollero, Patxi, Eltzikorta, Karmen eta EUSKAL PRESOEKIN BAT!

GOIZPER
Transmisioak

MATABI
Ihinztagailuak

Enbrageak, balaztak eta balazta-enbrage mekaniko, pneumatiko, elktromagnetiko eta hidraulikoak.
Espeka globika, lau eta zilindrikadun etenkako biragailuak. Espeka bereziak.

Nekazaritzan, loretegietan, industrian eta etxean tratamendua egiteko ihinztagailu eta hautseztagailuak.

FABRIKAZIOA
GOIZPER KOOP. ELK.

Antigua auzoa 4
20577 Antzuola (Gipuzkoa)
211 Posta kutxatila 20570 Bergara

Tf. 943 78 60 00
Telexa 38856 GOIS-E
Faxa 943 76 60 08-943 78 70 95

MATZ-ERREKA

Zorionak jaietan!

Berotan estanpaturiko torlojugintza berezia
•
Plastiko eraldakuntza injekzio bidez
•
Ate eta pertsianak zabaltzeko motorreduktoreen fabrikazioa

Ibarreta z/g 20577 Antzuola
Tf. 943 76 60 00 Faxa 943 76 63 75

E elay
Taldea

Tf. 943 766100
Faxa 943 766262
20577 ANTZUOLA (Gipuzkoa)

elay INDUSTRIAL
Ebaketa zehatza / Doitasunezko trokelaketa

TROKelay
Trokelgintza

SEYTRA
Galda bainitikoa / Plastikodun gainestalketa

elay-DEUTSCHLAND
Zerbitzu komertziala

Balzers–Elay Balinit
Estaldura gogorretako zerbitzua

# Udalekuetan jolasean

## Jokoak eta irteerak uztaileko goizetan



**Azken urteotako uztailetan gertatu izan den moduan, Xipizaro ludotekak antolatutako udalekuak martxan jarri ziren eguenean. Aurten, 3 urtetik 14 urtera bitarteko 350 gaztetxo ari dira udalekuetan parte hartzen. Uztailaren bukaerara arte, lagunartean, era askotako ekintzekin gozatzeko aukera izango dute.**

Aurtengoa udalekuak antolatzen diren hamargarren aldia da. Hasieran Udala izan zen udalekuak martxan jartzearen bultzatzailea eta ondoren Kikaundiri eta Xipizarori (azken aldian) eman zitzaien udalekuen ardura. Xipizaro ludotekak hirugarren urtez jarraian antolatzen ditu udalekuak eta aurten 350 gaztetxo dituzte euren ardurapean. Neska-mutilekin 34 begirale eta 2 koordinatzaile ari dira lanean. Ainhoa Arbelaitz eta Ane Laskurain osintxuarrak ditugu udalekuetako koordinatzaileak hain zuzen. Ainhoak azaltzen digunez, "haurren kopurua urtetik urtera mantendu egiten da, baina aurten eskaera zertxobait handiagoa izan da. Gutxi gorabehera 300 haur jasoko genituela aurreikusten genuen eta azkenean 350 izan dira". Gaztetxoak Poligonoko Aranzadi Ikastolan eta San Martin ikastetxean daude banatuta, gazteenak (150 inguru) Poligonoan eta gainontzekoak San Martinen. Partaideek 4.500 pezetako matrikula ordaindu behar izan dute eta udalekuak goizez izaten dira, astebarruan 10:00etatik 13:00etara.

### Jokoak eta irteerak

Ikasturteko liburu eta lezioak ahazturik, aktibitateak jokoetan eta irteeretan oinarritzen dira batik bat. Hala ere, eguraldiak ez du gehiegi lagundu orain arte eta jarduera asko ikastetxe barruan egin behar izan dituzte. Martitzenean, esaterako, San Fermin Txiki eguna zegoen programatuta baina, euria zela medio, gaztetxoek ez zuten kalera irtetzerik izan. Begiraleak dira taldeak dinamizatzeaz arduratzen direnak, aurretik programatutako irteera, joku, eskulan, kirol jarduera etabarrekin. Aurrekoetan moduan, neskak dira nagusi begiraleen artean eta badira ia udalekuen hasieratik haurrekin lanean izan diren zaintzaileak. Ainhoa Arbelaitzen hitzetan, "esperientziadun begiraleak izateak lana erreztu egiten digu nolabait. Elkar ezagutzen dugu lehendik eta bada-



Aurten Chernobiletik etorritako hiru gaztetxo ari dira udalekuetan.

kite haurrekin lan egiten. Era berean, begirale berriek zalantzaren bat izanez gero, badaukate nora jo". Begiraleen aukeraketa egiteko proba bat egiten da ekainean eta, besteak beste, denbora libreko monitore titulua edota EGA euskara agiria izatea baloratzen da. Ainhoak aipatu digunez, "aurten 60 lagun izan ziren proban eta, zoritxarrez, ia erdia kanpoan geratu ziren. Hori izaten da gogorrena".

Gaztetxoen taldeak 10 bat lagunekoak dira eta adinaren arabera banatuak. Hala ere, eskolaurreko haur guztiak elkarrekin daude aurten, lau begiralerekin. Bergarako ikastetxe guztietako ikasleak ari dira udalekuetan. Aurten gaztetxo gehienak 6. mailara artekoak dira eta, begiraleekin gertatzen den moduan, urtetik urtera huts egiten ez dutenak ere badaude; "gero eta gehiago kostatzen zaigu nagusienak erakartzea. 8. mailan ari direnak 14 urte dituzte dagoeneko eta hainbat urtean jarraian etorri direnez, gehiago kostatzen zaie berriro hona etortzea, azken batean urteroko programazioa oso antzekoa izaten baita".

**Eguraldiaren menpe**

Aurten, besteak beste, Bergara zein Arrasateko piszinetara, Pleitos baserriko ostrukak ikustera edo eta Gorla eta San Martzialera mendi irteerak daude aurreikusita. Jarduera guztiak eskolatik kanpo egiten ahalegintzen dira, baina eguraldiarekin ez dute zorterik izan oraingoz. "Eeguraldiak agintzen duena egin behar duzu askotan. Txikienak ateratzea nekezagoa izaten da, baina saiatzen gara kanpora irtetzen ahal dugun guztietan; ziriburuetara Espoloira, Bolura, Goiko Estaziotik buelta egitera... Irteeretan jokoak edota kantuak tartekatzen dira". Udalekuen helburua zein den argi dauka Ainhoak; "elkar errespetatzen ikastea, euskara lantzea eta natura errespetatzea. Horiek izango lirateke helburu nagusiak".

Gaztetxoek lagun berriak egiteko aukera daukate udalekuetan. "Taldeak osatzerakoan ikastetxe ezberdinetako ikasleak nahasten saiatzen gara, lagun berriak egin ditzaten. Bergaran, adibidez, adin hauetan badago elkar ezagutzen ez duten neska-mutilak eta nahiko arraroa gertatzen zait hori niri, beharbada Osintxukoa naizelako eta han guztiok ezagutzen dugulako elkar" diosku Ainhoak. Aurten kanpotik eto-

***Udalekuetako aktibitateak jokoetan eta irteeretan oinarritzen dira. Uztailaren bukaerara arte 350 gaztetxo arituko dira Xipizarok antolatutako udalekuetan***

# Haurrentzako animazio zerbitzua lehiaketara

Joan zen asteleheneko Plenoan haurrentzako animazio zerbitzua adjudikatzeko baldintza pleguak onartu ziren. Beraz, azken urteotan Xipizarok eraman duen zerbitzua lehiaketa publikora aterako da eta irailean jakingo da nori adjudikatzen zaion. Hain zuzen ere, ikasturte berriaren hasierarekin batera, irailaren 17an, jarriko da indarrean zerbitzu berriaren hitzarmena. Udalak eta adjudikazio hartzaileak urtebeterako kontratua sinatuko dute eta beste lau urtez luzatzeko aukera izango da. Hartzaileak izango dituen betebeharren artean, ludoteka zerbitzua (eskola orduetatik kanpo haurrentzako jolasak, Seminarioko lokalean eta Osintxun), Osintxuko liburutegia (liburutegiko zerbitzua egunean ordu t´erdikoa izango da), astebukaeretako jarduerak (umeentzako irteerak eta jolasak Osintxun eta Bergaran) eta, azkenik, uztaileko udalekuen antolaketa leudeke. Udalak 8 milioi eta erdi pezeta (BEZa sartu gabe) ordainduko ditu zerbitzu guztiengatik. Kontratatutako zerbitzuak aurrera eramateko sortzen diren gastu guztiak (kontratazioak etabar) prezioan barne direla ulertzen da. Bestalde, baldintza pleguetan jasotzen denez, zerbitzu ezberdinak emateko jendea kontratatu behar izanez gero, adjudikazio hartzaileak herriko jendea kontratatu beharko du. Udan, esaterako, begiraleen beharra izaten da eta aurtengo uztailean 34 gazte ari dira udalekuetan begirale lanetan. B

rritako neska-mutilak ere badira, izan ere, uda igarotzeko Chernobiletik Bergarara heldutako hiru neska-mutil daude udalekuetan.

Neska-mutilak bere kabuz joaten diren ala gurasoek bidaltzen dituzten Ainhoak berak argitzen digu; "nik suposatzen dut eskolaurreko haurren kasuan gurasoek nahi dutelako etortzen direla. Ez dakit 4-5 urteko umea gai ote den esateko udalekuetara etorri nahi duela. Gainontzekoetan, suposatzen dut gurasoek seme-alabei komentatuko dietela ea etorri nahi duten eta beraien esku lagako dutela azken erabakia. Zer egin ez dakitela egotea baino, hobe da uztail guztia bere adineko neska-mutilekoekin igarotzea. Arratsaldetan badaukate bestelako gauzak egiteko aukera. Hala ere, proportzioan gehiago dira eskolaurreko umeak maila nagusietakoak baino. Ez dakit zergatik izango den baina hala izan da beti".

**Ludoteka**

Urtean zehar Xipizarok Seminarioko ludotekaren ardura dauka. Ainhoaren arabera, "oso ezberdina da ludoteka ala udalekuak antolatzea. Ludotekara umeak duten denbora librea ondo pasatzera eta jendearekin harremanetan jartzeko joaten dira eta negu guztia ludoteka barruan pasatzen dute, astebarruan gehienbat jolas egitera bideratuta dago. Apiriletik aurrera, berriz, irteera gehiago egiten ditugu. Nahiz eta zerbitzu baten barruan egon biak, oso ezberdina da 60 edo 300 ume gure ardurapean izatea. Ludotekan, egunean ordu eta laurdeneko ordutegia betetzen da eta udalekuetan, berriz, hiru ordu izaten dira. Ludotekako programazioa ezin da hona ekarri, bestelako programazioa osatu behar izaten dugu".

Udalekuetan, haurrez gain, begiraleek ere ederki pasatzen dute. "Nahiz eta batzuetan gogorra egiten den, lehenbizi gidaria bera izan behar da haurrekin disfrutatzen duena, bestela nekeza izango da haurrak ondo pasatzea. Umea motibatzeko begiralea motibatuta egon behar da, hori argi dago". B

***Gaztetxoek lagun berriak egiteko aukera izaten dute udalekuetan. Taldeak osatzerakoan ikastetxe ezberdinetako ikasleak nahasten saiatzen gara" AINHOA ARBELAITZ***



Eguraldiak laguntzen ez duenean, eskulanak edo bestelako jarduerak egiten dira ikastetxe barruan.

REMENTERIA
Altzariak
Egongelak / Logelak
Aukera guztiak / Enkarguan
Artekale 6 Tf.: 943 76 13 29

LONBIDE
OINETAKOAK
Bidekurutzeta 5
BERGARA
☎ 943 76 10 57


DENA
100etik
ZURE OPARIENTZAKO
Simon Arrieta 3

AB Asesoresek zuretzat aukeratu ditu...
munduko inbertsio-fondorik onenak... fondo bakar batean
AB Fondos RV FIM
Dei iezaguzu 943 76 54 35 telefonora eta informatuko zaitugu.
Gutxieneko inbertsioa: 100.000 PTA.
AB ASESORES
Ondo inbertitzea denon esku dago
Santalaitz 6, S.Lorentzo industrialdea
Tf. 943 76 54 35
20570 BERGARA
http://www.abasesores.es

# IPINTZAKO futbol txapelketa



## partiduak

**NESKAK**

**Eguaztena 15**
**19:15:** Las Rascamantas-Baleike
**20:30:** Eztaki-Biko Bokategia
**20:30:** Gamma Rai-Potzu Ta Zapaburuak

**MUTILAK**

**Eguakitza 10**
**19:15:** Gu Geu-La Beccia Kukuxumuxu
**20:30:** Bildurbarek Opel/Lam-Game Over
**Astelehena 13**
**19:15:** Altos Pornos-Osintxu
**20:30:** Ezinleike-Xurrupak
**Martitzena 14**
**19:15:** Matxakategi-Insert Koin
**20:30:** A Ze Flaxa La Guipuzcoana-Arloteak Oilagorra
**Eguena 16**
**19:15:** A multzoko lehenengoa-B multzoko bigarrena
**20:30:** B multzoko lehenengoa-A multzoko bigarrena

## emaitzak

**NESKAK**

| | |
|---|---|
| Azkenak-Las Rascamantas | **2-1** |
| Biko Bokategia-Potzu Ta Zapaburuak | **0-6** |
| Eztaki-Gamma Rai | **2-6** |

**MUTILAK**

| | |
|---|---|
| Osintxu-Gu Geu | **2-1** |
| La Beccia Kukuxumuxu-Bildurbarek Opel/Lam | **0-1** |
| Game Over-Altos Pornos | **3-4** |
| A Ze Flaxa La Guipuzcoana-Ezinleike | **3-0** |
| Xurrupak-Matxakategi | **1-0** |
| Insert Koin-Arloteak Oilagorra | **0-5** |
| Angiozar-KIB | **2-4** |
| Etengabe-Manitou | **1-5** |

## argi

A multzoan partidu guztiak jokatu dituzte eta Manitou eta KIB sailkatu dira final laurdeneetarako. Bestalde, atzo, eguena, jokatzekoak ziren B multzoko azkenengo partiduak. Mongatxurrak dagoeneko sailkatuta dago, baita Bildurbarek Opel/Lam ere C multzoan. D multzoan, berriz, gauzak hestu daude eta martitzenean erabakiko dira gauzak. Eguenetik aurrera, final laurdenak.

## jokoz kanpo



**Saioa Bolibar**
EZTAKI

**G.** Nola zabiltzate txapelketan?
**E.** Oso gaizki. Puntu barik gaude, azkenengo postuan sailkatuta.
**G.** Ze tokitan jokatzen duzu?
**E.** Atzealdean.
**G.** Txapelketa hasi aurretik hain txarto sailkatuta egotea espero zenuten?
**E.** Nik, behintzat, ez nuen uste horren gaizki ibiliko ginenik.
**G.** Mutilen partidurik ikusten al duzu?
**E.** Antolaketa Batzordean nago eta partidu guztien jarraipena egin beharra daukat.
**G.** Ze desberdintasun nabaritu duzu neska eta mutilen artean?
**E.** Mutilak gehiago hasarretzen dira beraien artean. Horrek ez du esan nahi neskek ez ditugula partiduak serio hartzen, baina adiskidetasun handiagoa nabari da.
**G.** Esaiguzu zure taldeak daukan gauzarik hoberena.
**E.** Giroa beharbada.
**G.** Eta txarrena?
**E.** Oso gutxi agertzen gara partiduak jokatzera. Konpromisu handiagoa izan beharko genuke.
**G.** Zein da faboritoa nesketan?
**E.** Potzu Ta Zapaburuak. Hasieran, Biko Bokategia izango zelakoan nengoen baina ez du zorte handirik izan.

## golegileak

**NESKAK**

**Kadeteak**

| | | |
|---|---|---|
| 1. **Rachel Olabarria** | Baleike | 14 gol |
| 2. **Rebeca Fernandez** | Las Rascamantas | 3 gol |

**Nagusiak**

| | | |
|---|---|---|
| 1. **Eva Alzas** | Biko Bokategia | 9 gol |
| 2. **Naiara Beistegi** | Gamma Rai | 8 gol |

**MUTILAK**

| | | |
|---|---|---|
| 1. **Iban Etxeberria** | Mongatxurrak | 9 gol |
| 2. **Gorka San Vicente** | Osintxu | 7 gol |
| 3. **Juan Luis Etxaniz** | Bildurbarek Opel/Lam | 7 gol |

## sailkapenak

### A multzoa

| | P | J | GA | GK |
|---|---|---|---|---|
| **1.** Manitou | **10** | 4 | 16 | 8 |
| **2.** KIB | **10** | 4 | 13 | 7 |
| **3.** Angiozar | **6** | 4 | 17 | 11 |
| **4.** Shaktale | **3** | 4 | 7 | 12 |
| **5.** Etengabe | **0** | 4 | 5 | 20 |

### B multzoa

| | P | J | GA | GK |
|---|---|---|---|---|
| **1.** Mongatxurrak | **12** | 4 | 17 | 6 |
| **2.** Facuta | **6** | 3 | 8 | 11 |
| **3.** La Juve | **3** | 3 | 8 | 9 |
| **4.** Amilotx | **3** | 3 | 6 | 8 |
| **5.** Fo Fo Fo | **0** | 3 | 5 | 16 |

### C multzoa

| | P | J | GA | GK |
|---|---|---|---|---|
| **1.** Bildurbarek Opel/Lam | **12** | 4 | 14 | 3 |
| **2.** Altos Pornos | **7** | 4 | 14 | 14 |
| **3.** Osintxu | **6** | 4 | 10 | 5 |
| **4.** Game Over | **4** | 4 | 7 | 9 |
| **5.** La Beccia Kukuxumuxu | **4** | 4 | 7 | 12 |
| **6.** Gu Geu | **1** | 4 | 5 | 14 |

### D multzoa

| | P | J | GA | GK |
|---|---|---|---|---|
| **1.** A Ze Flaxa La Guipuzcoana | **7** | 4 | 10 | 4 |
| **2.** Arloteak Oilagorra | **7** | 4 | 10 | 4 |
| **3.** Insert Koin | **7** | 4 | 7 | 6 |
| **4.** Xurrupak | **6** | 4 | 5 | 8 |
| **5.** Matxakategi | **6** | 4 | 4 | 7 |
| **6.** Ezinleike | **1** | 4 | 0 | 7 |

### Neskak, kadeteak

| | P | J | GA | GK |
|---|---|---|---|---|
| **1.** Baleike | **9** | 3 | 18 | 0 |
| **2.** Azkenak | **3** | 4 | 5 | 14 |
| **3.** Las Rascamantas | **3** | 3 | 5 | 14 |

### Neskak, nagusiak

| | P | J | GA | GK |
|---|---|---|---|---|
| **1.** Potzu ta Zapaburuak | **13** | 5 | 18 | 4 |
| **2.** Gamma Rai | **11** | 5 | 19 | 7 |
| **3.** Biko Bokategia | **4** | 5 | 21 | 15 |
| **4.** Eztaki | **0** | 5 | 6 | 38 |

## Iñigo Zaitegi, BKEko presidentea:

# "BKE egoera onean uzten dut, eta mantendu beharra dago"

**Orain dela hilabate batzuk zegoen egoera berean aurkitzen da BKE: inork ez du zuzendaritzaren ardura hartu nahi. Iñigo Zaitegik kargua lagatzeko garaia heldu dela aspaldi adierazi du presidente lanetan bost urte izan ondoren. Egun hauetan, zuzendaritza batzordean izan litezkeenekin hizketan dihardu, baina oraindik ez da ezer argitu. Inor agertuko ez balitz, futboleko zazpi talde desagertzeko zorian izango lirateke.**


Iñigo Zaitegik 5 urte eman ditu BKEn presidente karguan.

G. Jendeak zergatik dauka horren interes gutxi BKEren ardura hartzeko?

E. Interesa badago baina ez dago presidente kargua hartu nahi duen inor. Berez, ez litzateke hain lan nekeza izan behar, zuzendaritza batzordearen aldetik konpromisua baldin balego.

Nire kasuan, hamar lagun hasi ginen eta bostek amaitu dugu. Denetik egin izan behar dut: arbritatu, belarra moztu, tresnak konpondu... Normala iruditzen zait jendeak beldurra izatea. Ez nuke nahi niri gertatutakoa hurrengo presidenteari gertatzerik baina, horretarako, konpromisua hartuko duten pertsonez inguratu behar da. Bestalde, elkartea aurrera atera eta Bergaran talde berriak sortzeko animatu ginen eta horrela egin dugu; hor dago, esate baterako nesken futbol taldea. Taldea ez genuen gure interesesrako sortu, neskak jokatzeko aukera izan zezaten baizik. Halere, batzuk ez zuten horrela ikusi eta alde egitea pentsatu zuten. Hau ez nuen batere gustoko izan.

G. Zer dela eta utziko duzu BKE?

E. Bakarrik nago eta dagoeneko bada garaia. Denbora eskatzen du eta badaude egiteko beste gauza batzuk ere. Bost urte asko da. Datorrenari laguntzeko prest nago baina ez dut presidente moduan jarraituko. Eskola kirolean, futboleko preferenteko taldean, idazkari lanetan edota presidenteari berari laguntzeko prest egongo nintzateke.

G. Zer dela eta hartu zenuen presidente izateko ardura?

E. BKEn hutsune haundiak ikusi nituen eta eskaintza egin zidatenean gogoa nuen Bergarako kirolaren alde zerbait egiteko. Harrez gero, esan bezala, talde berri asko sortu eta aurrekontuan ere asko hobetu dugu. Gehiago egin daiteke, noski, baina horretarako laguntza handia behar da. Elkartea egoera onean lagatzen dudala uste dut eta ondorengoak gauzak ondo eramango dituelakoan nago.

G. Zer botako duzu gehien faltan?

E. Jokalarien eta egunero Ipintzan aritzen garenon artean sortu den giroa. Aurten sekulako giroa izan da jokalari eta futbola ez diren gainontzeko kiroletako arduradunekin. Jendea beti azaldu da lanerako prest. B

Aprobetxatu oporrak
GIDA BAIMENA
ateratzeko

LARRAÑAGA
AUTOESKOLA

Izena ematean
%10EKO BEHERAPENA
Gazte Txartelarekin

Tf. 943 76 16 63



Beti Busti Kirol Elkartea joan den urteko Saturraran-Deba Itsas bidaian.

# Beti Bustiren V. Itsas bidaia domekan

## Antolatzaileek 40 lagun inguru biltzea espero dute

**Beti Busti Kirol Elkarteak, ohiturari eutsi eta domekan kayetan izango den Saturraran eta Deba arteko V. Itsas bidaia antolatu du. Elkarteak urtean antolatzen duen era honetako irteera bakarra da eta Bizkaia, Gipuzkoa eta Iparraldeko zaletuak gerturatuko dira bertara.**

Piraguismoak gero eta interes handiagoa pizten du bergararrengan. Eskola Kirolean aritu diren neska-mutilek eta ikastaroetara gerturatzen direnek, argi laga dute piraguismoaren inguruan Beti Bustik egiten duen lanaren garrantzia.

Beti Busti duela hamaika urte sortu zen eta une honetan, 35-40 kide inguru daude elkartean. Hango eta hemengo itsaso, ibai eta urtegietan ibiltzen dira eta txapelketa, proba eta inguruko piraguisten elkarteek antolatzen dituzten kontzentrazio gehienetan izaten dira. Besteak beste, Sellako jeitsieran, Najerillako txapelketan, Donibane Lohizune-Hondarribia eta Getaria-Donostia probetan eta Txingudi, Santoña eta Laredoko kontzentrazioetan ibili dira.

**Txapelketetan maila bikaina**

Txapelketetan ari diren taldekideek maila paregabea erakutsi dute aurten. Gipuzkoa, Euskadi eta Espainiako txapelketetan bigarren postuak lortu dituzte. Datorren astebukaeran, esaterako, Nogera Pallaresa ibaian (Lleida) egingo den Espainiako txapelketan arituko dira eta abuztuko lehen astebukaeran ere Najerillan jokatuko den txapelketara joateko asmoa dute.

**Egoitza faltan**

Beti Busti elkartekoek adierazi digutenez, "itsasoa atsegin duenak piraguan ibiltzea atsegin du. Mendizalea mendi tontorrera heltzen denean bista ikusten izugarri gozatzen du. Itsasoan berdin gertatzen da. Bertatik ikusi daitekeen paisaiak sentsazio berezia sortzen du. Bestalde, urte asko daramatzagu taldearekin eta irteera asko egin dira. Horrek guztiak lana eskatzen du eta lan hori egiteko egoitza baten faltan gaude. Ne-



Piraguismoak ibai, urtegi eta itsasoan ibiltzeko aukera ematen du.

guan igerilekuetan izaten gara, bertan piraguan aritzen garelako eta, beraz, bilerak han egiten ditugu, baina udan ez daukagu non egon. Elkarteko kideren baten garajean ez bada, bestearenean aritu behar".

Jende gehiena piraguan gehienbat uda aldean ibiltzen den arren, badira urte osoan zehar igerilekuetan, errekatxoetan eta ibaietan aritzen direnak: "entrenamenduetan dabiltzanak izaten dira batez ere. Normalean astebukaeran zehar, Bidasoa ibaira edota igerilekuetara jotzen dute. Besteok, uda aprobetxatzen dugu batez ere".

**5 kilometro itsasoan**

Domekako irteeran parte hartu nahi duenak, goizeko hamarretan agertu beharko du Saturrarango hondartzara; irteera 10:30etan izango da. 40 bat lagun elkartzea espero dute Beti Bustikoek. Trabesiak bost kilometro izango ditu eta adin guztientako pertsonentzat zuzenduta dago.

Bergara, Mutriku eta Debako udalen laguntzaz gain, Federazioaren egutegian antolatu den proba da eta azken honek txapelketak aurreikusten ez dituenez, ez da lehiatzerik izango.

Bestalde, Gurutze Gorriaren eta Surra Irratizale taldekoen laguntza ere izango du probak. Azken hauek, itsasbidean zehar izango dira ezustekoak gaitzetsi ahal izateko. Probaren ondoren, lunch-a egongo da parte hartu duten guztientzat Deban. B



Uretan ibili ondoren luntx ederra izango da domekan.

## Gimnasia erritmikoa: brontzezko domina Gijonen Espainiako txapelketan

**Joan zen** domekan jokatu zen Gijonen gimnasia erritmikoko Espainiako txapelketa eta Ariznoa taldeko Ane Miren Fernandez eta Jaione Igartuak hirugarren postua lortu zuten junior mailan Euskadiko selekzioarekin. Ane Mirenek joan zen urtean baloiarekin lortutako zortzigarren postua hobetu du aurten, seigarren sailkatuz. Taldeka egindako txapelketan, berriz, berrogeita lau taldeetatik, hamahirugarren postua lortu zuten.

Ane Miren, Jaione eta Helena Herreros, euren entrenatzailea, joan zen martitzenean abiatu ziren Gijonerantz eta eguaztenean entrenamenduetan jardun ondoren, eguenean lehiatu ziren estatuko gimnasta onenekin.

## LIII. Antzuolako Txirrindulari Saria domekan izango da

**Domekan**, LIII. Antzuolako Saria "Iñaki Lete VI. Oroigarria" txirrindulari lasterketa egingo da. 23 urte azpikoentzat izango den proba honetan parte hartuko duten 200 txirrindulariek, Deskarga, Udana eta Asentzio gainak igo beharko dituzte. Guztira, 140 kilometro inguruko ibilbidea egin beharko dute.

## Iker Muruamendiaraz Elgetako txapeldun

**Iker** Muruamendiarazek, 23 urtez azpikoentzako lau eta erdiko pilota txapelketa eskuratu zuen domekan. Iban Otaegiri 22-13 irabazi zion finelean. Ikerrek, partidu hasieran aurrea hartu zion Otaegiri eta, ondorengo tantoekin gerturatu egin zitzaion arren, bergararrak ez zion txapela eskuratzeko aukerarik eman.

Elgetakoa izen haundiko txapelketa da afizionatu mailan eta bertan irabazi duten asko une honetan profesionaletan ari dira. Iaz, esate baterako, Galartza V.ak irabazi zuen, finalean Berasaluzeren kontra nagusitu ondoren. Une honetan, bai Galartza V.a eta bai Berasaluze ere, profesional mailan ari dira jokatzen.



# Iragarki sailkatuak

Iragarkia DOAN jartzeko, zatoz Berrigarara edo deitu telefonoz, 943 76 03 97, eguazten eguerdia baino lehen. Berrigarak ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitezkeen operazioen erantzukizunik.

***Zure iragarkia ia 16.000 lagunek irakurri dezakete!***


**1. ETXEBIZITZAK**
Saldu
Erosi
Errentan emateko
Errentan hartzeko
Etxe konpartituak
Bestelakoak

**2. GARAJEAK**
Saldu
Erosi
Errentan emateko
Errentan hartzeko
Bestelakoak

**3. LOKALAK**
Saldu
Erosi
Errentan emateko
Errentan hartzeko
Bestelakoak

**4. LANA**
Eskaintzak
Eskaerak
Bestelakoak

**5. IRAKASKUNTZA**
Eskaintzak
Eskaerak
Bestelakoak

**6. AUTOAK/ MOTOAK**
Saldu
Erosi
Bestelakoak

**7. ANIMALIAK**
Saldu
Erosi
Bestelakoak

**8. DENETARIK**
Saldu
Erosi
Eman
Hartu
Trukatu
Galdu
Aurkitu
Bestelakoak

**9. HARREMANAK**
Agurrak
Kontaktuak
Deiak
Bestelakoak


## 1. ETXEBIZITZAK

### Saldu

Erreformatzeko dagoen etxea salgai Barrenkalean. 943 76 29 10.

Barrenkalean apartamentua. 943 76 56 41.

Etxea salgai Osintxun. Erdi-amueblatua. 943 76 49 74.

S. Antonio. 943 76 56 20.

Mekolalde. 943 76 05 79.

Antzuola. Amueblatua. 943 76 62 52.

Etxea salgai Aranerrekan. 943 76 09 24.

### Errentan emateko

Pisua alokairuan Alcoceber-en, udan. 943 76 12 14.

Laredo, udan. 943 76 13 86 (gauez).

Apartamentua Laredon, hondartzatik gertu. 943 79 52 80.

Estudioa Benidorm-en. 943 76 23 43.

Apartamentua Benidorm-en. Hondartzatik gertu. 943 74 20 31.

Apartamentua Jacan. 943 76 56 31 (gauez).

### Errentan hartzeko

Familia batek etxea hartuko luke alokairuan. 943 76 26 82.

Pisua alokatu nahi dut. 943 76 30 57.

Pisua edo logela alokatuko nuke uztailetik aurrera. 943 74 44 44 (lanorduetan).

Pisua hartuko nuke. 943 76 32 57 (David)

## 2. GARAJEAK

### Saldu

Garajea Torrekuan. 2 plaza. 943 76 28 24.

Garajea salgai Masterrekan. 943 76 27 71.

Burdiñate. 943 76 40 74.

Ibargarai. 943 76 57 93.

Masterreka. 943 76 2457.

Salgai. 943 76 40 03.

Zurradero. 943 76 02 89.

Ibargarai. 943 15 15 81.

Bolu. 943 76 51 54.

Garaje bikoitza S. Lorentzon. 943 76 58 00.

S. Antonio. 943 76 15 37.

Kruz Gallastegi. 943 76 27 61.

### Errentan emateko

Garajea alokairuan Bolun. 943 76 55 26.

Garajea alokairuan Poligonoan. 943 76 32 58.

### Errentan hartzeko

Garajea/ganbara alokatuko genuke. 943 76 50 00.

Garajea alokatuko nuke. 943 76 05 17.

## 3. LOKALAK

### Saldu

Lokala salgai edo alokairuan Masterrekan. 150m$^2$. 943 76 11 89.

Lokala salgai A. Fleming. 943 76 00 84 / 76 35 83.

Lokal komertziala salgai Martokoan. 943 76 25 67.

### Errentan emateko

Lokala alokairuan. 943 76 35 09.

## 4. LANA

### Eskaintzak

Zaharrak zaindu edo etxeko garbiketak egingo nituzke. 943 76 00 90.

Klinika laguntzaileak gaisoak/helduak zaintzen ditu. 943 76 64 47.

Neskak orduka lan egingo luke. 939 47 25 84.

Uztailean zehar umeak zainduko nituzke. 943 76 07 50 (gauez).

Etxeko lanak egin edo haurrak edo zaharrak zainduko nituzke. 943 76 29 14 (Ana).

Neska eskaintzen da atariak edo etxeak garbitzeko. 919 52 98 04.

Neska euskaldun batek egunean ordu batzutan lan egingo luke. 943 76 23 41 (Itxaso).


PANADEROKUA ISATETXEA
Kontxi Idigoras
Asteburuetan bertako babak eta sabieskia
SALBADOR 10 ELGETA TF. 943 76 82 73

GISASOLA BURDINAKI DENDA
"Erratzu"
San Pedro 8 Tf.: 943 76 27 70 BERGARA

IGELTSERITZA BIAK, S.L. IGELTSERITZA
A. Fleming 5
BERGARA
Mobilak:
907 44 50 38
907 46 57 38

M
MEMESA
INDUSTRI HORNIDURAK
Tf. 943 71 24 25

IBARGUREN PENTSUAK
BIONA pentsuen biltegia,
BIOTER produktuak,
haziak eta bestelako nekazal produktuak
Pentsuak Biona BANATZAILEA
San Pedro 3 Tf. 943 76 23 79

Arratsaldeetan haurrak zainduko nituzke. Esperientzia. 943 76 03 76 (Maite).

**Eskaerak**

Antzuolan pertsona bat behar da umeak zaintzeko irailetik aurrera. 943 76 65 00.

Pertsona behar da ume bat zaintzeko irailetik aurrera. 943 76 08 47.

Neska euskalduna behar da etxeko lanak egiteko eta haurrak zaintzeko. 943 76 04 56 (gauez).

Umeak zaintzeko neska behar da. 943 76 57 81.

## 5. IRAKASKUNTZA

**Eskaintzak**

Ingeles klaseak ematen ditut. 943 76 53 88 (Rosa).

Ingeles klaseak uztailean (goizez). 943 76 17 18 (Jesus).

Frantseseko klaseak ematen ditut. 943 76 39 68.

OHO eta BBBko 3. mailara arteko klaseak. 943 76 72 24 (Saioa).

Majisteritzako ikasleak OHO klaseak ematen ditu. 943 76 47 30 (Aitziber).

OHO eta BBB klaseak. Deitu 943 76 33 26 telefonora.

Ingeles klaseak. Deitu 943 76 25 79 telefonora (Nuria).

Majisteritzako ikasleak OHOko klaseak ematen ditu. 943 76 37 94.

OHO eta BBBko 3. mailara arteko klaseak udan. 943 76 32 93.

Mate, fisika eta LOGSE 2. mailara arteko klaseak. Uztaila eta abuztua. 943 76 24 31.

Enpresaritza klaseak ematen dira. Deitu 943 76 05 43 telefonora (Miren).

1. eta 2. Hezkuntzako klaseak. 943 76 42 08 (Nere).

**Eskaerak**

Ekonometriako klaseak hartuko nituzke. Deitu 943 76 26 82 telefonora (gauez).

Estatistika deskribatzaileko klaseak hartuko nituzke. 943 76 54 58.

## 6. AUTOAK/MOTOAK

**Saldu**

Ford Sierra. 943 76 18 28.

Peugeot 205 gorria. 943 76 21 70 (Ander).

Roller jet karabana. 5 plaza. 943 76 44 05.

Kawasaki GPX 600 R motorra. 943 76 09 17.

Remolkea. 1,10 x 1 x 60. Poliesterreko tapa, ia berria. 943 76 37 87.

Suzuki motorra salgai. 943 76 00 90.

**Erosi**

Remolkea (2 m.ko kajaduna) erosiko nuke. 943 73 19 60.

## 7. ANIMALIAK

**Saldu**

Txakurra salgai. 5.000 pezeta. 919 41 44 41.

## 8. DENETARIK

**Saldu**

Orbea Sherpa bizikleta salgai. 943 76 52 76.

Pianoa. 943 76 51 54.

Depilatzeko makina elektrikoa salgai. 943 76 46 90.

Master Sistem 2 bideo jokoa salgai. 12.000 pezeta. 943 76 06 96.

Razesa errepiderako bizikleta. 58 neurrikoa. 943 76 31 10.

MTB Hook mendiko bizikleta berria salgai. 28.000. 943 76 13 33.

Donostian (Amaran) 2 lagun behar ditugu pisua konpartitzeko. 943 79 27 42.

Aspe garbigailua salgai. Berri-berria. 40.000 pezeta. 943 76 11 11.

Pioneer musika ekipoa salgai. CD eta bozgorailuekin. 919 41 44 41.

Errepideko bizikleta salgai. 943 76 00 56.

**Galdu/Aurkitu**

Euskal selekzioaren txandala galdu nuen S. Arrietan. 943 76 14 94.

Urrezko belarritako bat aurkitu dugu Simon Arrietan. 943 76 29 32.


**Langai**
Euskal Lan Zerbitzua

***KARROZERITZAKO APRENDIZA***
Aiala bailara. 8154/4

***MULTIMEDIA PROGRAMATZAILEA***
Deba Garaia eta Bilbo. 945/1

***2 IGELTSERO***
Plentzia/Mungia. 9783/4-10733/3

***2 ILEAPAINTZAILE (emakumeak)***
Bilbo. 9968/1

***SOLDATZAILE HOMOLOGATUA***
Cantabria/Araba. 10328/2

***MATRIZEROA***
Deba Garaia. 9383/3

***CNC FRESADOREA***
Donostialdea. 9500/3

***SUKALDARI LAGUNTZAILEA***
Markina/Ondarroa. 10552/3

***PRODUKZIO KOORDINATZAILEA***
Ibaizabal. 10699/1

***2 ATS / DUE***
Gernika-Bermeo. 10818/5

***KARTOGRAFIA ARDURADUNA***
Donostialdea. 10057/3

***REKTIFIKATZAILEA***
Donostialdea. 10154/1

***MONTATZAILE-AJUSTATZAILEA***
Donostia. 10157/1

***KALIBRAKETAKO 2 PRESTATZAILE***
Deba Garaia. 9385/2

**Lan eskaintza hauetakoren bat interesatzen bazaizu, erreferentzia hartu eta eskatu informazioa.**

LANGAI Udaletxean: astelehen, eguazten eta eguakitzetan 9:00etatik 13:00etara.
Telefonoa: 943 77 91 65, Maria Jesus Unamuno.

**Arrasateko gimnasio batek**
**FISIOTERAPEUTA**
**behar du**
Bidali curriculuma
**UZTAILAREN 17a baino lehen**
**helbide honetara:**
Pardo estetika zentrua (tf. 943 79 52 17). Iparragirre plaza 4, behea. 20500 Arrasate.

**Matxiategi Elektragintza C.B.**
**ELEKTRIZITATE MATERIALEN SALMENTA ETA INSTALAKUNTZA**
**Fleming 5 ☎ 943 76 19 94**

**Pertsona bat behar da**
**dendan orduka lan egiteko**
**943 76 72 21**

*Mujika gozotegia*
**Berezitasunak:**
Bizkotxoak
Errellenoak
Tostoiak
Artekalea 3 **BERGARA** 943 76 10 34

**Carmen Garate**
**Plastikoak orokorrean. Oinetakoak. Opari gaiak. Jostailuak. Zumea...**
Bidekurutzeta 6 ☎ 76 13 23

**Irizar 2**
**☎ 943 76 14 95**
**JAUJA KIROLAK**

# Azkenaldian euskaraz sortu diren filme labur interesgarrienak ikusgai izango dira Bergaran

## Eguenean, "Txotx", "Laugarren galeriatik" eta "Bernar" eskainiko dira

**Datorren eguenean, hilak 16, azkenaldian Euskal Herrian sortu diren hiru laburmetrairik ezagun eta sarituenetakoak ikusteko aukera izango dugu: "Txotx", "Laugarren galeriatik" eta "Bernar" pelikula moztak bideo pantaila haundian eskainiko dira Bidekurutzetan.**

Jardun Elkarteak antolatu du emanaldia eta hasierako asmoa Bidekurutzeta kalea zine areto bihurtzea bada ere, baliteke, arazo teknikoak edo eguraldia direla medio, azkenean, Gartzela Zaharrean egitea. Edozein modutan, emanaldia gaueko 10:30etarako iragarrita dago eta sarrera doan izango da.

Hiru laburrak euskaraz sortuak dira eta gaztelerazko azpitituluekin emango dira. Lehenengoa, zinean errodatuta dago eta beste biak, Betacam bideo sisteman, baina zineko moduan, hau da, kamara bakarrarekin eta planoz plano grabatuta.

Hiru pelikulak batera eskaintzeko aukera, *Hurbil* produktoraren bitartez sortu zaie egileei. Xabier Alberdi, "Laugarren galeriatik" eta "Bernar" laburmetraien egileetako batek adierazi digunez, "45 minutuko emanaldia eskainiko dugu. Hiru laburretan Bergarako jendeak parte hartu du eta, bestalde, oso harrera ona izan dute orain arte; kalitatezko lanak dira. Asmoa herriz-herri erakustea da". Lehen emanaldia Bergaran egingo da eta aurretik aurkezpen moduko bat egingo da. Egileekin batera, aktore lanetan aritu diren Miren Gojenola, Gorka Zufiaurre eta Mikel Laskurain ere bertan egotea espero dute antolatzaileek.



Gorka Zufiaurre, "Bernar" laburreko protagonista.

### Sagardotegi bitxian, "Txotx"

Asier Altuna bergararrak eta Telmo Esnal zarauztarrak idatzi eta zuzendutako filme laburra (13 minutu). Bertan ematen duten okelengatik ezaguna den sagardotegi bitxi batean girotuta dago pelikula. Oihana Gardoki eta Mikel Laskurain bergararrek ere lan egin dute filmean: lehenengoak produkzioan eta bigarrenak aktore lanetan.

"Txotx" laburrak sari ugari jaso ditu hainbat zine jaialditan, azkena, Malagako zine jaialdian, laburmetrai onenaren bigarren saria lortuz.

### "Laugarren galeriatik" eta "Bernar"

Jon Andueza arrasatearra (gidoilari eta zuzendaria), Xabier Alberdi bergararra (produktorea) eta Aitor Agorria zornotzarra (argazki zuzendaria) hirukotearen bi lan hauek, umore beltzaz zipriztinduta dagoen "Txotx" baino intimistagoak dira.

Lehenengoa, Jon Anduezak idatzitako ipuin batean (Bergarako Udalak antolatzen duen literatur lehiaketan saritua) oinarrituta dago eta bi presoren arteko harremana kontatzen da. Arrasate Telebistako estudioetan orain dela bi urte grabatu zen. Aitor Aldabaldetreku eta Kepa Gallego dira filmeko protagonistak. 21 minutuko iraupena du. Barakaldo, Errenteria eta Biasteriko jaialdietan sari bana jaso zuen.

"Bernar", berriz, aurtengo neguan Kantabriako Sonabiako hondartzan grabatuta dago eta Miren Gojenola eta Gorka Zufiaurre dira protagonistak. Haurdun dagoen emakume baten eta mutil atzeratu baten arteko harremana kontatzen da. 12 minutuko iraupena du. Gasteizko bideo jaialdian parte hartu zuen eta Elcheko jaialdian parte hartzeko aukeratua izan da. Ekainaren 5ean estreinatu zen Urretxun, Gorka Zufiaurreren herrian. B

MUJIKA
Jantzidenda
Barrenkalea 1. Tf: 943 76 29 91

BUNKY
ume eta gazteentzako oinetakoetan aukera aparta
Chicco • Hamiltons • Babybotte • Chupetin • *eta abar*
Artekalea 29, BERGARA. Telefonoa: 943 76 72 21

BERGARA
MARMOLERIA
PEDRO SALEGI OSA
*Sukalde eta bainu enzimerak*
Urarte 8 BERGARA
☎ 943 76 11 99 / 14 47
Faxa: 943 76 04 77

euskal herria kantuz jaialdia

# Baionako Xaramela eta Etxarri Aranaz abesbatzak

**"Euskal Herria Kantuz" izenburupean, uztailaren 18an Udal Pilotalekuan izango den jaialdiarekin jarraituz, Baionako Xaramela eta Etxarri Aranaz abesbatzen berri emango dizuegu aste honetan.**

Santa Marinako jaien barruan antolatuko den jaialdian, Hego Euskal Herriko lau herrialdeetako abesbatza bana eta Iparraldeko beste bat bilduko dira, Bergarako Orkesta Sinfonikoarekin eta Xamatz dantza taldearekin batera.

### Xaramela abesbatza (Baiona)

1986an Euskal Herriko Kultur Zentroak sortu zuen Baionan, Javier Bello Porturen zuzendaritzapean. Gaur egun, Marie Jose Goudard, Baionako Musika Kontserbatorioko irakaslea da zuzendaria. Bere sorreratik, abesbatza honen helburua, euskal musika sakroa eta profanoaren ondarea (Guridi, Sorozabal, Bello Portu, Zubizarreta...) ezagutaraztea eta zabaltzea izan da; halere, atzerriko konpositore garrantzitsuenen lanak ere (Lassus, Vivaldi, Mozart...) eskaini izan dituzte.

Musikaldi ugaritan parte hartu du eta 1996. urtean, abesbatzaren 10. urteurrena ospatzeko, hainbat ekitaldi antolatu zituzten: Ensemble Instrumental des Landes orkestarekin batera (Didier Leblonden zuzendaritzapean), Felipe Gorriti XIX. mendeko konpositorearen Meza Nagusia abestu eta lehen disko konpaktoa grabatu zuten.

### Etxarri Aranaz abesbatza

Uztailaren 18ko jaialdian Bergaran izango den abesbatzarik zaharrena, orain dela 85 urte sortu zen Etxarri Aranatzeko parrokiako koru bezala. 1972. urtetik aurrera, bestalde, estatuko hainbat tokitako abesbatzen lehiaketetan sariak jasoko ditu. Tolosako Nazioarteko Abesbatzen Lehiaketan ere jaso du saririk: 1973an, lehen saria; 1977an hirugarrena; 1974an, euskal korurik onenarena eta 1983an kantu gregorianoen atalean bigarrena.

Estatu eta nazioarte mailan zenbait kontzertu eman ditu eta, besteak beste, Bilboko Orkesta Sinfonikoarekin eta Pablo Sarasate orkestarekin batera lan egin du. Gaur egun, Igor Ijurrak egiten ditu zuzendari lanak. B



Baionako Xaramela abesbatza.

salduenak / **ekaina**

## LIBURUAK

**Euskaraz**

1. GROENLANDIAKO LEZIOA
   Bernardo Atxaga. Erein
2. ERROLANEN HARRIA
   Patxi Zabaleta. Txalaparta
3. EGUZKIAREN ETXEA
   Felipe Juaristi. Alberdania
4. ARGIZARIAREN EGUNAK
   Angel Lertxundi. Alberdania
5. ORAINGO GAZTE EROAK
   Joxe Azurmendi. Luma

**Erdaraz**

1. LA BOTICA DE LA ABUELA
   Telebistako saioari buruzkoa. Integral
2. COLEGAS.
   Pepe Rei. Txalaparta
3. EL CORAZÓN TARDÍO
   Antonio Gala. Espasa
4. EL LIBRO NEGRO DEL EUSKERA
   Joan Mari Torrealdai. Ttarttalo
5. EL EGIPTÓLOGO
   Christian Jacq. Plaza & Janes

*Iturria: Etxepare-Bilintx, Peñalba, Zangitu*

## DISKOAK

1. BILBAO 00:00 H
   Kepa Junkera
2. KALANBREAK
   Gozategi
3. ARENA EN LOS BOLSILLOS
   Manolo García
4. TALK ON CORNER
   The Cors
5. EL PODER DE MACHÍN
   Amparanoia
6. 1998
   Tapia eta Leturia
7. THE BEST
   Eternal

*Iturria: Etxepare-Bilintx, Zaiazko*

ETXEPARE-BILINTX
LIBURUDENDA
Liburuak eta diskoak
Ibargarai 12 ☎ 943 76 40 50 BERGARA

Paper pintatuak - Pinturak
A. ZANGITU
ORDUTEGI BERRIA:
8.00-13.00 ETA 15.00-20.00
☎ 943 76 19 54 BERGARA
IRU: ☎ 943 79 11 71 ARRASATE

## denborapasa / LUMA

| 1 | 2 | 3 | 4 | 5 | 6 | 7 | 8 | 9 | 10 |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 2 | | | | | | | | | |
| 3 | | | | | | | | | |
| 4 | | | | | | | | | |
| 5 | | | | | | | | | |
| 6 | | | | | | | | | |
| 7 | | | | | | | | | |
| 8 | | | | | | | | | |
| 9 | | | | | | | | | |
| 10 | | | | | | | | | |

### Ezker eskuma

1. Produkzioak. 2. Arrastoa. Tantalioa. Oxigenoa. 3. Poztasuna. 4. Errepikatuz, gorotza. Naizen honi. Aluminioa. 5. Ukapen. Marokoko eskualdea. 6. Emakume izena. Ut! 7. Kimatu. Lehen biak. 8. Baztango herria. Karraskari mota. 9. Kalearen hasieran. Zero. Arituz. 10. Aran mota. Musika nota.

### Goitik behera

1. Emakume. 2. Iparraldean, berritsuak. 3. Oratu aditzaren infinitiboa. Zango-atala. Lehenengoa. 4. Labore-hauts. Herri-hizkeran, eta. Zakur. 5.Eragiketa aritmetikoa. Bokala. 6. Fosforoa. Areago. Izan. 7. Amore eman. Oinarrizko edaria. 8. Nauka. Ataurre. 9. Bokala. Namibiako biztanle. 10. Australian bizi diren ugaztunak. Emakume izena.

### *Soluzioa*

Ezker eskuma

1. Ekoizpenak. 2. Marra. Ta. O.
3. Alaitasuna. 4. Ka. Niri. Al.
5. Uko. Ketama. 6. Maite. Utik!
7. Ematu. Ab. 8. Zia. Akuria.
9. Ka. O. Arian.
10. Okarana. Re.

Goitik behera

1. Emakumezko. 2. Kalakariak.
3. Ora. Oina. A. 4. Irin. Ta. Or.
5. Zatiketa. A. 6. P. Are. Ukan.
7. Etsitu. Ura. 8. Nau. Atari.
9. A. Namibiar. 10. Koalak. Ane.

## bonofotoa



Miguel Angel Elkoroberezibar

***Zein da zubi honetatik oso gertu dagoen ermitaren izena?***

## galde debalde

**Arretaz irakurri duzu Berrigara? Ea galdera hauei erantzuten diezun!**

1. Domekan Debara bizikleta-martxa ekologista izango da. Zenbagarren edizioa da?
A- XVII.a
B- XVIII.a
C- XIII.a

2. Beti Busti piraguismo taldeak ze irteera antolatu du domekarako?
A- Saturraranetik Mutrikura
B- Albinako urtegira
C- Saturraranetik Debara

3. Ze izen dauka Xabier Alberdi eta Jon Anduezaren azken laburmetraiak?
A- Genar
B- Bernar
C- Beñardo

*Jarri Bonofotoko eta Galde Debaldeko erantzunak behean eta asmatzen dituzuenon artean afari ederra zozketatuko du Berrigarak. Aste honetan irabazten duenak eta berak aukeratutako lagunak **Iraho** jatetxean izango dute afaria.*



Aurreko aleko saria, **Nerea Lete**rentzat izan da: Beheko Taberna jatetxean bi lagunendako afaria. Zorionak Nereari! Galderen erantzun zuzenak hauek ziren:
Bonofotoa: **Iturriberri**.
Galde Debalde: **1-C, 2-B, 3-B**.

**BONOFOTOA**

**GALDE DEBALDE** *1: 2: 3:*

Izena-deitura: Telefonoa:

*Ekarri edo bidali txartela **EGUAZTEN EGUERDIRAKO** Berrigarara! AFARI EDERRA IRABAZ DEZAKEZU!*

IRAHO JATETXEA
Amillaga 23, gasolindegi ondoan.
943 76 15 59

**Gamarran sukaldari ikasketak egin zituen eta, besteak beste, Txuringo jatetxean izan da lanean. Aurtengo uda Agorrosingo igerilekuetan lanean emango du, mantenimendu eta garbiketa lanetan.**

# *Iñigo Larrañaga*



**Piszinetako lanik gorrotagarriena?**
Zaborrak kanpora ateratzea.
**Ordurik onena piszinetan?**
Goiza eta eguerdi partea.
**Eta txarrena?**
Arratsaldea, 15:30etatik aurrera.
**Uretan zenbat denbora egiten duzu?**
Ez naiz uretan sartzen.
**Neguan joaten zara piszinetara?**
Bai.
**Barruko ala kanpoko piszinak?**
Kanpokoak.
**Puntuatu 0tik 10era.**
6,5.
**Udan, eguzkitan ala kerizpean?**
Biak gustatzen zaizkit.
**Bainujantzi motza ala luzea?**
Luzea.
**Dutxan, ur hotza ala beroa?**
Beroa.
**Egun eguzkitsuak ala lainotsuak?**
Biak. Lainotsuetan lasaiago ibiltzen gara baina antzerako lana izaten dugu.
**Laneko ordu hilak, zertan?**
Piszinari bueltaka.
**Irakurritako azken liburua?**
"Sinuhe el egipcio".
**Piszinak ala hondartza?**
Hondartza.
**Gustoko bat?**
Lekeitiokoa.
**Zer izan nahi zenuen txikitan?**
Motoziklista.
**Bazkaria prestatu ala jan?**
Jatea hobe.
**Plater bat?**
Arroza eta arraina.
**Jan ezin duzun bat?**
Bruselako azak.
**Edari bat?**
Garagardoa.
**Juergazalea zara?**
Ez.
**Gaua ala eguna?**
Gaua.
**Zenbat ordu egiten duzu lo?**
Zortzi bat.
**Besteengan gehien baloratzen duzuna?**
Leialtasuna.
**Animalia bat?**
Zaldia.
**Kolore bat?**
Grisa.
**Filme bat?**
"Quadrophenia".
**Musika talde bat?**
Mano Negra.
**San Ferminetara joango zara?**
Ez.
**Entzierroak ikusten dituzu?**
Bai. B


Bizkotxoak, erreilenoak eta tostoiak
Larrañaga
San Pedro, 9 - Telefono 761051
R.S.I. 209374 - SS
BERGARA
Gozogintzan aintzindari.
Ekainaren 29tik uztailaren 20ra oporrengatik itxita

Zumelaga
JATETXEA
ZERBITZU, KALITATE, KANTITATE ETA PREZIOAN PAREKORIK EZ!
San Antonio 5 BERGARA ☎ 943 76 20 21

AGIRREBEÑA
oinetakoak
arropa denda
lenzeria
Urteaga 5 ☎ 943 76 18 29

Garnish
Bitxitegia
San Pedro 12 ☎ 943 76 03 57

Kizkur

Ileapaindegia
Estetika
Solariuma
Bolu 51. Bergara. 943 76 50 32



# Arantzazun, 1948

Orain 50 urte herriko eskoletan, epaitegian, zebiltzan 6-13 urte arteko mutikoek Arantzazura kurtso amaierako eskurtsioa egin zuten. Antonio Iturbek ekarri digun argazkian, praka motzak, alkondara eta pikodun jertsea jantzita, hor agertzen dira guztiak dotore-dotore. Eskolako maisuak eta Arantzazuko fraileak ere bertan ikusi ditzakegu. Astelehenean 50 urte bete ziren txangoa egin zutenetik. Urtemuga hori ez litzateke izango aitzakia txarra berriz elkartzeko!



Hauek dira argazkian agertzen direnak:

1. D. Salvador
2. D. Manuel
3. D. Marino Basterra
4. D. Jose Maria Azkarate
5. Ezezaguna
6. D. Eustakio Azkarate-Askasua
7. Ezezaguna
8. D. Tomas Barrena
9. D. Elias Azpiazu
10. Jose Julian Garitano
11. Faustino Garcia
12. Jabier Lazpiur
13. Felix Arruti
14. Imanol Lazkano
15. Jose Kalboetxeaga
16. Iñaki Uamuno
17. Manolo Zabala
18. Sabin Azkarate
19. Jabier Bilbao
20. Iñaki Odriozola
21. Gotzon Villar
22. Ignacio Muniategiandikoetxea
23. Jesus M. Larrañaga Gall.
24. Manolo Sanchez
25. Luis Maria Alberdi
26. Victor Larrañaga
27. Justo Ezpeleta
28. Karmelo Gallastegi
29. Sabin Ezpeleta
30. Juan Azkarate
31. Ignacio Azkarate
32. Angel Mujika
33. Ugalde
34. Santi Galdos
35. Joxe Gallastegi
36. Luis Maria Odriozola
37. Pako Lonbide
38. Angel Ruiz
39. Doroteo Zabala
40. Patxi Aiastui
41. Imanol Agirrezabal
42. Sabas Igartua
43. Moises Larrañaga
44. Luis Maria Basterra
45. Mario Sanz
46. Pedro Pildain
47. Antonio Ziarsolo
48. Juan Egaña
49. Joakin Zurutuza
50. Mikel Larrañaga
51. Bixente Iribekanpos
52. Ignacio Irizar
53. Ramon Agirrezabal
54. Juanito Castillo
55. Bixen Gonzalez
56. Nartxi Begiristain
57. Juan Pedro G. de Balujera
58. Txomin Ziarsolo
59. Angel Elkoro
60. Urien
61. Avelino
62. Joakin Loidi
63. Sabino
64. Juan Maria Leturia
65. Jesus M. Larrañaga Tell.
66. Teodoro Oregi
67. Daniel
68. Julian Aranburu
69. Jose Maria Legazpia
70. Fermin Aretxaga
71. Nicolas Coranti
72. Jose Mujika
73. Genaro Manso
74. Manu Muniategiandikoetxea
75. Antonio Etxebarria
76. Alfonso Agirre
77. Jesus Maria Alberdi
78. Pedro Garitano
79. Pedro Maria Zubia
80. Jose Antonio Lazpiur
81. Ezezaguna
82. Ezezaguna
83. Jabier Ena
84. Felix Aranburu
85. Andres Mujika
86. Antonio Iturbe
87. Jose Antonio Manso
88. Alberto Larrañaga
89. Julian Elkoroberezibar
90. Pedro Garcia
91. Francisco Aranzabal
92. Angel Irizar
93. Armando Gallastegi
94. Jesus Maria Elkoro
95. Jabier Zabaleta
96. Ezezaguna
97. Doroteo Telleria
98. Jose Maria Iñarra
99. Fernando Coranti
100. Patxi Amutxastegi
101. Roman Gallastegi
102. Patxi Leturia
103. Patxi Igartua
104. Angel Azkarate
105. Patxi Azkarate
106. Pedro Egaña
107. Jose Antonio Sebal
108. Justo Idigoras
109. Fermin Pinedo
110. Luis Urzelai
111. Jenaro Lekuona
112. Jose Luis Mendizabal
113. Jabier Mendizabal
114. Eloy Sanz
115. Jose Maria Ugarte
116. Jabier Laskurain
117. Luis Rodriguez
118. Jose M. Schez. Menayo
119. Valentin Larrañaga
120. Pepelui
121. Jesus Maria Elkoroberezibar
122. Luis Maria Egaña
123. Luis Maria Garitano
124. Roman Durana
125. Jabier Muruamendiaraz
126. Urien
127. Tomas Barrena
128. Jose Ramon Loidi
129. Ezezaguna







CIONE Optika taldea

P. MANSO
Optika

Irizar 2 BERGARA Telefonoa: 943 76 27 86


Sofa leku
a, eme... interiores
centro hogar MUEBLES
grupo
Amuebladora Mondragonesa
a. eme. interiores, Garibai, 9 • ARRASATE • Tel.: 943 79 15 03
a. eme. sukaldeak, Zigorrola, 1 • ARRASATE • Tel.: 943 77 14 92
centro hogar muebles, Zigorrola, 1 • ARRASATE • Tel.: 943 77 14 92
sofa leku, Zigorrola, 1 • ARRASATE • Tel.: 943 77 14 92